EBAZPENA HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEARENA, BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN 2020-2021 IKASTURTEA ANTOLATZEKOA

AURKIBIDEA

BIGARREN HEZKUNTZA: HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA 2020-2021 IKASTURTERAKO 3
I. ZATIA: 6
1.- HEZKUNTZA ANTOLATZEKO ETA PLANIFIKATZEKO OINARRIZKO DOKUMENTUAK . 6
1.1.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP) 6
1.2.- IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA (IHP) 12
1.3.- JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK 12
1.4.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK 13
1.5.- BIZIKASI EKIMENA 13
1.6.- JARDUTE-PROTOKOLOA, HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTEKO, ETA HEZKUNTZA-ESPARRUAN ETA ADINGABEEN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKOA 15
1.7. IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEI EDO GENERO PORTAERA EZ-NORMATIBOA DUTENEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO 16
1.8. IKASKETAK ATZERRIAN 16
2. IKASLEAK 17
2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA 17
2.2.- HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA ESPEZIFIKOAK (HLPE) DITUZTEN IKASLEAK 18
2.3. ANIZTASUNARI ARRETA EMATEKO PROGRAMAK: HEZKUNTZA-INDARGARRI ESPEZIFIKORAKO PROGRAMA, CURRICULUM-ANIZTASUNAREN BIDEZ IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMAK ETA ESKOLATZE-PROGRAMA OSAGARRIAK 22
2.4. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARLOETAKO LANKIDETZA-ESPARRU OROKORRA 23
2.5. ESKOLA-ORDUTEGIA 23
2.6. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA 24
2.7. ERLIJIOA 24
2.8- LANBIDE-HEZIKETAKO PROIEKTU-MODULUA. GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK. 25
2.9. IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK. 26
3.- IRAKASLEAK ETA HEZITZAILEAK 34
3.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA 35
3.2.- HEZKUNTZA-EREFORTZUA 36
3.3- ZUZENDARITZA-TALDEA 37
3.4.- IKUSPEGI INKLUSIBO BATETIK ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO BEREZIKI PRESTATUTAKO IRAKASLEAK 38
3.5.- DEPARTAMENTUAK 40
3.6.- IRAKASLE TALDEAK ETA TUTORETZAK 41
3.7.- ENPLEGUA LORTZEKO PRESTAKUNTZA 42
3.8. BERARIAZKO LANGILEAK 43
4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK 44
2. ZATIA 45

BIGARREN HEZKUNTZA: HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEAREN EBAZPENA 2020-2021 IKASTURTERAKO

SARRERA

Euskal hezkuntza-komunitateak, oro har, Covid-19 pandemiaren hedapenak eragindako larrialdi-egoeraren aurrean eman duen erantzunak esperientzia handia ekarri du Sailaren, ikastetxeen, irakasle taldeen eta irakasle bakoitzaren esparruan.

Inplikatutako pertsonen ezagutza nabarmen zabaltzea eragin du jarduera ez-presentzialak. Hortik abiatuta, beharrezkoa da etorkizunean gerta daitezkeen antzeko egoeretarako prestatzea.

Hezkuntza ez-presentzialaren aldian agerian geratu da online hezkuntzak ezin duela ordezkatu eskolako esperientzia pertsonala, baina funtsezko elementu bihurtzen da ikaskuntzei eusteko. Online ikaskuntzen potentzial guztia behar bezala garatzeko, beharrezkoa da tresna didaktikoak izatea, irakasleen azpiegiturak eta ezagutza hobetzea, eta sistemako ikasle guztien konektibitatea bermatzea.

Azken urteotan, ikastetxeek eta irakasle taldeek ahalegin handia egin dute ikastetxeak digitalizatzeko eta irakasleak informazioaren eta komunikazioaren teknologietan irakasleak trebatzeko, Hezkuntza Sailaren laguntza eta aholkularitzarekin, laguntzako zuzendaritzen eta zerbitzuen bidez (berritzeguneak eta Ikuskaritza).

Hainbat jarduera eta proiektu garatzeko espazioak sortu dira, eta *Ikasgunea* atarian bildu dira. Atari hori bitarteko egokia da ikastetxeen, irakasle taldeen, ikasleen eta familien arteko komunikazioa kudeatzeko. Atari horretan, ikastetxe-familia komunikazioaz gain, Sailaren lehentasunezko jardunbideekin koherenteak diren programei lotutako baliabide ugari bildu dira, hala nola STEAMgunea, Irakurgunea eta Bizikasigunea, eta berriki AMARAUNA webgune semantikoa gehitu da, etapa eta maila guztietarako dokumentu eta material didaktikoen gordailu batekin. Webgune horrek, hainbat iturritako materialak emateaz gainera, EAEko irakasleek sortutako materialak partekatzea ahalbidetzen du, baita aholkularitza-zerbitzuek sortutakoak ere.

Halaber, posible da bitarteko digitalen bidez kudeaketa akademikoko ia prozesu guztiak egitea, hala nola matrikulazioa, Eskola Jardueraren Dokumentua, eskola-egutegia, asistentziaren eta kalifikazioen kudeaketa, espedienteak eta tituluen kudeaketa.

Esan daiteke, beraz, euskal hezkuntza-sistema eskolatzeko era berriei aurre egiteko moduan dagoela, bai hezkuntza presentzialerako, bai urrutiko hezkuntzarako, bai hezkuntza mistorako.

Zalantzarik gabe, gaitasun hori erabakigarria izango da datozen hilabeteetan pandemia-egoera berri bat gertatuz gero inguruabarrak arrakastaz gainditzeko.

Erronka berriei ekin beharko zaie, ikasleek baliabideak izan ditzaten gerta daitezkeen egoera berriei berdintasun-baldintzetan aurre egin ahal izateko; eskola birtualak egitea ahalbidetuko duten bideokonferentzia-sistemak hobetzeko —horretarako, ezinbestekoa da irakasleak teknologia horietan prestatzea—; eta, Euskadiko Eskola Kontseiluaren gomendioetan jasotzen denez, aldaketa metodologikoak bultzatzea, ikaskuntza-esperientzia presentzialak eta online ikaskuntza-esperientziak txertatuko dituzten proposamen berriekin.

Beharrezkoa da aldaketa metodologiko bat, ikasle guztien banakako ikaskuntzan oinarritua, elkarrekintzak erraztuko dituzten lankidetza-formulen bidez. Horrela, ikasle bakoitzaren aurrerapena ziurtatuko da, honako hauek garatuta: pentsamendu kritikoa eta sormena, arazoak konpontzeko eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna, eta gainerako ikasleekin elkarreragiteko eta helburu komunak lortzeko konpetentzia. Hori lagungarria izango da emozioen kudeaketa hobetzeko, eta talde-espiritua eta atxikimendu-sentsazioa garatzeko.

Ikasleak ohituta ez dauden irakatsi eta ikasteko modalitate ez-presentzialek ziurrenik protagonismo handiagoa hartuko duten inguruabar horietan, garrantzi berezia hartzen du autonomia pertsonalarekin eta motibazio intrintsekoaren garapenarekin lotutako zeharkako oinarrizko hezkuntza-konpetentziak bultzatzeak.

Azkenik, aurtengo martxoaz geroztik bizi izan dugun aparteko egoera dela eta, ikasturte berria antolatzeko funtsezko alderdiei buruz ikastetxeek egin dituzten gogoetek eta hartutako erabakiek kontuan hartuko dituzte Sailaren webgunean argitaratutako eta kokatutako dokumentuetan jasota dauden erreferentzietako batzuk, Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako proposamenak, baita testuinguruan gehiago kokatutako beste erreferentzia batzuk ere, ikastetxe bakoitzari egokitutako jardun-protokolo bat edukitzeko, hezkuntza-sistemako ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzeko, SARS-CoV-2 birusa berragertuko balitz ere.

2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekoan, osasun-larrialdiko egoera batean egon gara, eta horren ondorioz, lehenik eta behin, irakaskuntza-jarduera presentziala eten egin da, eta, ondoren, higiene- eta segurtasun-neurri batzuk hartu dira, betiere osasun-irizpideak eta -jarraibideak betez. Ikasturtea normaltasunera pixkanaka itzultzeko prozesuan amaitu da, osasun-bilakaeraren esparruan, eta, horri esker, jarduera presentzialak lehengoratu ahal izan dira normaltasun-egoerara iritsi arte, baina beti baldintzak gogortzeko aukerari adi, birusaren bilakaerak hala eskatuko balu, gure osasun-sistemaren babespean.

Hori guztia kontuan hartuta, ebazpen hau aldatu egin da*, 2020-2021 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Koronabirusaren (sars-cov-2) aurrean Jarduteko*

Protokolo orokorraren dokumentuan jasotako erreferentziak oinarritzat hartuta, eta haren egitura ahalik eta gehien sinplifikatzen saiatu da:

- Ez dira bertan sartzen beste esparru batzuetan arautzen diren uneko araubideen alderdi edo erreferentzien detaile guztiak, 2019-20 Ebazpeneko bertsioa Sailaren web-orrian mantenduko baita, haien inguruko beharrezko kontsultak egin ahal izateko. Dena den, adierazgarrienak sartu dira.
- Ikasturte-hasieran normaltasuna aurreikusten duen egoera bati lotutako alderdi adierazgarrienei erreparatzen dien Ebazpen bat aurkezten da.
- Eranskin bat gehitzen da, ikasturte berria planifikatu eta antolatzeko baliagarriak izan daitezkeen bitartekoen erreferentziak biltzen dituena.

Protokolo horrek kontuan hartu beharreko hiru egoera aurreikusten ditu:

- **1. agertokia:** aurrez aurreko irakaskuntza-jardueraren garapen normalizatua dakar.
- **2.agertokia:** bitarteko egoera bat, ikastetxeak irakaskuntza-jardueraren antolamendu malgu batera behartzen dituena, aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko, etapa, ikasturte edo ikasle jakin batzuen presentzialtasuna lehenetsiz.
- **3. agertokia:** konfinamendua eta hezkuntza-jarduera ez-presentziala eskatzen ditu.

I. ZATIA:

1.- HEZKUNTZA ANTOLATZEKO ETA PLANIFIKATZEKO OINARRIZKO DOKUMENTUAK

1.1.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP)

Ikasturte hau planifikatzeko lehentasunezko esparruei dagokienez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**
- **Konpetentzia digitala**
- **Programazioak curriculumaren funtsezko alderdietara egokitzea eta ebaluatzea**
- **Bizikasi hastapenaren esparruan, emozioen esparruari heltzea**

Hezkuntza-jarduera osoa garatzen den esparru inklusiboa kontuan hartuta, ezinbestekoa da beste batzuetan baino zehatzago jakitea ikasle bakoitzak konpetentziak zein neurritaraino lortu dituen, baita **konpetentzia horiek lortzeko zer laguntza edo errefortzu behar dituen** ere. Halaber, konfinamendu-etapan bereziki konplexuak izan diren egoerak berrikusi beharko dira, hainbat arrazoirengatik ikasleekin edo haien familiekin komunikazio egokia lortu ez delako. Beharrezkoa izango da datu horiek izatea eta **erantzuteko formula zehatzak aurreikustea, osasun-larrialdiko egoera posible bati begira**. Alde horretatik, **material digitalak prestatzea eta erabiltzea lehentasuna da, eta horren gainean hartu behar dira Urteko Planean jasoko diren erabakiak**.

Ikastetxe bakoitzak bere Urteko Planean berariazko atal bat sartuko du *Ikastetxeek COVID-19ren aurrean dituzten Jarduera Estrategiak* planifikatzeko, hezkuntza-jardueraren garapenean neurriak hartzea ekarriko duen berragertze bat gerta daitekeela aurreikusiz.

a) Irakaskuntza-jardueren programa

Lehentasun gisa, maila eta ikasgai bakoitzeko **programazioa egokitzera** bideratutako erabaki espezifikoak jaso beharko ditu, 2019-20 ikasturtean lortutako lorpen-maila kontuan hartuta eta arreta funtsezko elementuetan jarrita. Ikus eranskinean Bigarren Hezkuntzako etaparako *Curriculumaren funtsezko alderdiak* erreferentzia.

Erabaki horiekin batera, **ikasleak ebaluatzeko hainbat modu aurreikusi** beharko dira. Ildo horretatik, **iraila** hilabete berezia izango da ikasleek bizi duten egoeraren diagnostikoa

lortzeko. **Hasierako ebaluazio bat diseinatu beharko da**, ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera oinarri hartuta, ikasturte berrirako eskatzen diren funtsezko alderdiei dagokienez.

Lortutako informaziotik abiatuta, **laguntza- eta errefortzu-jarduerak** antolatu beharko dira, mailaz igo izanik, ikasturte berrirako aurreikusitako programazioari dagokionez zailtasun espezifikoak dituzten ikasleentzat.

Jarraibide eta orientabide **metodologikoei** dagokienez, ikasleak inplikatu behar dira informazioa bilatzeko, gogoeta egiteko, eta ezagutza aplikatu eta komunikatzeko prozesuetan. Ziurgabetasun-egoeretan eta aldaketa-prozesuetan ikastea oinarrizko konpetentziak garatzeko baldintza da, eta kasu honetan, ikasten ikasteko konpetentzia garatzeko aukera berezia. Ikasleen arteko interakzioa edo lana barne hartuko duten proposamenak bultzatuko dira, baita ikasleen autonomia sustatuko dutenak ere, Euskadiko Eskola Kontseiluak gomendatzen duen moduan. Testuinguru horretan, aukera baliatuko da harreman-testuinguru malguagoak eta sormen handiagoko proposamenak sortzeko, baita komunikazio-konpetentzien eta konpetentzia digitalen egitura hobetzeko ere. Baliabide teknologikoak eta ikasgela konbinatzeak ikaskuntza hobetzea ekar dezake, ikaskuntza-erritmoa pertsonalizatzeko aukera ematen baitu. Gainera, ikasgelatik kanpo eduki espezializatua eskuratzeko aukera ematen du, eta lankidetzan oinarritutako ikaskuntza ahalbidetzen jarraitzen du.

Azpimarratu da beharrezkoa dela **elkarren segidako mailetako irakasle taldeak koordinatzea** (bereziki, etapa edo ikastetxea aldatu bada), programazioen diseinua ikasleen beharrekin koherentea izan dadin, kontuan hartuta irakaskuntza-aldi ez-presentzialak izan dezakeen eragina.

Irakaskuntza-jardueren programak kontuan hartu beharko ditu ikastetxera joaten diren lehen hilabeteetan **ikasleekin konpetentzia digitala lantzeko jarduerak, osasun-larrialdiko beste egoera bat gertatuz gero, etxetik online jarduerarekin jarraitu ahal izan dezaten**.

Konfinamendu-aldian kontuan hartu diren erreferentzia askok agerian utzi dute gure ikasleen esparru emozionalari erantzuteko beharra, arreta berezia jarrita tutoretza-laguntzari, autonomia pertsonaleko konpetentziaren garapenari eta ikasten ikasteari, baita inklusibotasunari eta aniztasunaren tratamenduari arreta berezia jartzeari ere.

Zeharkako konpetentziak garatzen hasteko, plangintzan proposamen didaktiko berri honen ezarpena sartuko da: *Esparru sozioemozionala eta talde-kohesioa lantzeko proposamena: ikasitakotik abiatuz bide bati ekitea*. Proposamen horrek jarraipena ematen dio 2019-20 ikasturtearen amaieran egindako lanari: *Osasun-larrialdiko egoeran zeharkako konpetentziak garatzea. Egoeraren diagnostikoa eta hezkuntzako esku-hartzea*. Lan hori berariaz diseinatua

da konfinamendu-aldiaren ondorioz ikasle guztiekin eta, bereziki, egoera kalteberenetan daudenekin jorratu behar izan diren alderdi emozionalak lantzeko.

Bestalde, norberaren eta lanabesen eta/edo altzarien higieneak ere arreta berezia eskatuko du zeharkako konpetentziak garatzean, abiapuntu hartuta autonomia pertsonala eta parte-hartzea garatzea, birusa hedatzearen aurrean gizarte-portaera errespetuzkoa eta aktiboa izan dadin saiatuta.

Ildo horretatik, 2020-21 ikasturterako, ikasleekin lantzeko hautatutako materialen sorta bat jarriko da ikastetxeen eskura.

b) Prestakuntza-plana

Dagoeneko aipatu denez, ikasturte berriari begira, ikastetxe guztietan ezinbestekoak eta, ondorioz, lehentasunezkoak diren zenbait esparru lehenetsiko dira, ikastetxeko prestakuntza antolatzeko.

Ikasturte berri honetan, ikastetxeentzako oinarrizko prestakuntzak **ikastetxean, berritzegunean eta berdinen artean prestatzeko formulak jasotzen ditu, aipatutako esparruei heltzeko; hala badagokio, ikastetxeetara joan ezin diren ikasleentzat erantzun eraginkorra antolatu ahal izateko, haien ikaskuntza-prozesua bermatzen duena**.

Prestakuntzako ekimen globalaren esparruan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapan aipatutako esparruekin lotutako proposamen berriak jasotzen dira. Hala ere, aurreikusitako moduluak amaitu ez dituzten ikastetxeek modulu horiekin jarraitu ahal izango dute, betiere haien plangintza lehentasunezko jarduera-esparruak garatzearen mende jarrita.

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia**

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia garatzeak kezka sortzen du, batez ere, gaztelaniadunen inguruneetan, non ikasleek euskararekiko eguneroko lotura trinkoa hautsi behar izan duten. Horregatik, proposamena berritzeguneetatik ikastetxe guztietara zabalduko da, **hizkuntzen Europako esparruko B1 eta B2 mailetako erreferentzietatik** konpetentzia horren aurrerapenean arreta fokuratzeko.

Esparru horretan, Irale laguntza-zerbitzuaren bidez, ahozko adierazpenarekin eta irakurketarekin lotutako ikastetxeko prestakuntza-ekintza ekimenak jarriko dira abian.

- **Konpetentzia digitala**

Irakasleen eta ikasleen **trebakuntza teknologiko** nahikoa bermatu beharko da, behar izanez gero lan digitaleko lotura bermatzeko. Berdinen arteko ikaskuntza errazten duten estrategiak erabili beharko dituzte, teknologia digitalen erabilerara egokitzeko prozesua bizkortzeko.

Horien artean daude, besteak beste: online saioak sortu, kudeatu, sustatu eta emateko aukera ematen duten prestakuntza-plataformak; gela birtualak; bideokonferentziak; bideodeiak; ikastaroak sortzeko webak; laguntzako irakasleen komunitateak; Amarauna bezalako baliabideen gordailuak eta bilatzaile semantikoak, irakasleek sortutako materialak partekatzeko aukera ematen dutenak.

Esparru horretan, nahitaez jardungo da irakasleen aldetik konpetentzia honen oso oinarrizko maila eta ikastetxearen garapen teknologiko eskasa direla-eta zailtasunak identifikatu diren ikastetxe guztietan.

Gainera, 18 berritzeguneetan irakasleei zuzendutako prestakuntza-ikastaro bat emango da, irakasleen konpetentzia digitalen oinarrizko maila garatzeko. Horretarako, etapako aholkulariak ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin bilduko dira, prestakuntza hori behar dezaketen irakasleak identifikatzeko, aipatutako ikastaroa egiteko lehentasuna izan dezaten.

- **Programazioak curriculumaren funtsezko alderdietara egokitzea eta ebaluatzea**

Irailean, berritzeguneetako erreferentziazko aholkularitza-zerbitzuek beren ikastetxeetako batzorde pedagogikoekin esku hartuko dute, esparru honetan dituzten beharrak hautemateko eta baterako lan-plana diseinatzeko. Helburua da batzorde pedagogikokoak orientatzea beren programazioetan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak identifika ditzaten, baita haiek aholkatzea ere, ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak eta horiei lotutako eta irakatsi eta ikasteko jarduerak hauta ditzaten.

Bestalde, berritzeguneen zonako mintegien eskaintzaren barruan, zeinak lan-ildo komuna mantendu eta areagotuko baitu eremu guztietan aldi berean jorratutako gaiekin, zuzendaritza-taldeen mintegien garrantzia nabarmentzen da; izan ere, 18 berritzeguneetarako ezartzen diren koordinazio- eta prestakuntza-gaiez gain, *Ikastetxeek COVID-19aren aurrean dituzten Jarduera-Estrategiak* partekatzeko balio behar dute. Urteko Planean, baita **programazioak curriculumaren funtsezko alderdietara egokitzea eta horiek ebaluatzeko.**

Gainera, berritzegune guztietan mintegiak jarriko dira abian hizkuntza indartzeko irakasleentzat; beraz, ikastetxeetako zuzendaritzek mintegi horietan parte hartzeko aukera eman beharko dute.

Era berean, erreferentziazko aholkularitzek ikastetxeei lankidetza eskainiko diete familiei prestakuntza antolatzeko konpetentzia digitalean, zuzendaritzek hala erabakitzen badute.

COVID-19ak piztutako osasun-krisi egoerak asaldatu egin du ikastetxeen funtzionamendu normala eta, bereziki, **nabarmen eragin dio ikastetxeek 2019-2020 ikasturterako prestatu zituzten proiektuak eta programak betetzeari**, inongo kasutan ere ezin baitzen aurreikusi hezkuntza-jarduera presentziala bertan behera gera zitekeenik. Dena den, 2020-2021 ikasturtean, kontuan hartu behar da hori gertatzeko aukera.

Ohikoa da ikastetxeek ikasturte batean garatuko duten hezkuntza-ekintzaren zati handi bat zenbait hilabete lehenago planifikatzea. Horregatik, Sailaren deialdien esparruan, datorren ikasturteko berezitasunak kontuan hartuta, beharrezkoa da ikastetxeek deialdi horietan aurkeztu dituzten edo aurkeztuko dituzten proiektuak eta programak berrikustea eta berriro formulatzea, agertoki bakoitzeko irakaskuntza-errealitatera egokitzeko, abiapuntuko 1. agertokitik hasi eta irakaskuntza ez-presentzial eta presentzial konbinaturaino —baita irakaskuntza ez-presentzialaren aukera bakarraz ere 2. eta 3. agertokietan—, betiere lehen aipatutako lau jardun-esparruak kontuan hartuta.

c) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoen programa

Beharrezkoa da aurreikusitako jarduerak programatzea, baldin eta ikasturtean zehar topa ditzakegun egoeretako edozeinetan osasun-agintariek proposatutako neurriak bermatzen badira, eta hartuko diren erabakiei arreta berezia jartzea gomendatzen da, betiere horretarako familien parte-hartzea eta lankidetza kontuan hartuta.

Helburuak, inplikatutako ikasle eta irakasleak, eta egiteko eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira. Erregistro horrek Ordezkaritza Organo Gorenaren eta Ikuskaritzaren eskura egon beharko du ikastetxean.

Egungo egoeran **ez da aurreikusten ikastetxetik kanpo gaua ematea dakarren jarduerarik**.

Erasmus+ ikasleen mugikortasunaren kasuan, bai mugikortasun-proiektuetan (KA1), bai elkarte estrategikoen proiektuetan (KA2), Erasmus+ programan jarduera birtualen bitartez parte hartzen hasteko aukera eskain dakieke, ondoren atzerrian mugikortasun fisikoarekin konbinatzeko, egoerak ahalbidetzen badu (Blended Mobilities). Langileen iraupen laburreko

mugikortasunari dagokionez, mugikortasun birtualeko aldi bat hautagarritzat jo daiteke, ezinbesteko kausak irauten duen bitartean.

Azkenik, gomendatzen da ikasturte honetarako ezarritako lehentasunezko esparruekin lotutako eskolaz kanpoko jardueren antolaketa bultzatzea (euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, konpetentzia digitala eta esparru emozionalari heltzea).

d) Urteko kudeaketa-programa

Uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan xedatutakoaren arabera egin beharko da (EHAA, 1998-09-14koa eta 1998-09-23koa). Zuzendaritza-taldeari edo Batzorde Iraunkorrari dagokio urteko planaren zati hori prestatzea, Ordezkaritza Organo Gorenak onar dezan.

e) Ikastetxeek COVID-19ren aurrean jarduteko estrategiak

2020-2021 Ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (sars-cov-2) aurrean Jarduteko Protokolo orokorrean jasotako proposamenari erantzuten dio Urteko Planaren atal berri honek.

Honako hau ezartzen du: "*Ikastetxearen Urteko Planean, hezkuntza antolatzeko eta planifikatzeko oinarrizko dokumentuan, 2020-2021 ikasturtea Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeentzat eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat antolatzeari buruzko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenetan jasoa. Atal horretan, protokolo orokor honetatik eta Laneko arriskuen prebentziorako neurrietatik eratortzen diren eremuak definitu eta jasoko dituzten zenbait estrategia jasotzen dira.*
Egin beharreko jarduerak eta egon daitezkeen egoeretarako beharrezkoak diren koordinazio-mekanismoak aurreikusiko dituztenak, ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitatearekin adostuta eta"

Ildo horretan, 2. edo 3. agertoki baten plangintzan landu behar diren atalek *Laneko arriskuen prebentziorako neurrietan* jasotakoak osatzen dituzte, eta hezkuntzako esku-hartzearen antolaketarekin lotura handiagoa duten gaiei buruzkoak dira, hala nola:

- Ikasleei arreta emateko jardunaldia antolatzea
- Ikasleak eta irakasleak ikastetxera joatea
- Aurrez aurreko elkartzeak antolatzea
- Jolas-saioak
- Ordutegia arreta zuzenarekin osatzen ez duten irakasleen antolaketa
- Irakasleen koordinazioa
- Aurrez aurreko eta online saioak
- HPBak dituzten ikasleei eta ikasle kalteberei arreta ematea

- Programazioa egokitzea
- Ebaluazioaren egokitzapena
- Komunikazioa familiekin

2020-21 ikasturterako Ikastetxearen Urteko Plana Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko da, *Hezkuntza Ikuskaritza / Dokumentuak* plataforma informatikoaren bidez —Sailaren webgunean dago plataforma hori—, **urriaren 30a** baino lehen.

Memoria, era berean, Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko da plataforma berean, **irailaren 15a** baino lehen.

1.2.- IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PROIEKTUA (IHP)

Ondorio garrantzitsu batera garamatzate Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren kanpo-ebaluazioko proben emaitzetan oinarrituta egindako gogoetak, ARRUE azterlanak, EUSLE ikasgelak abian jartzeak eta IRALEk 2019-20 ikasturtean irakurmenari buruz egindako esperientzia pilotua garatzeko izandako inplikazioak, baita beste erreferentzia batzuek ere (adibidez, Kluster Soziolinguistikoak ahozko adierazpenaren garapena sistematizatzeko egikaritutakoak). Ondorio hori EUSLE ikasgelak abian jartzeko erabilitako dokumentuan azaltzen da:

"(...) *hizkuntza ikasteari buruzko ikuspegia zabaldu egin daiteke, hizkuntza-formak eta -egiturak behar diren komunikazio-funtzioekin lotzen direlako, eta komunikaziorako estrategiak garatzen direlako. Horregatik, ikasleen premiak azaldu beharko dira eta hizkuntza zer egoeratan erabili beharko den adierazi, baita zer funtziotarako erabiliko den eta zer hizkuntza-nozio eta adierazle behar diren. Ikasleek trebetasunak eta estrategiak garatzea da kontua, hizkuntza eraginkortasunez eta egoera jakinetan erabiltzeko tresna izan dadin".*

Ildo horretatik, beharrezkoa da ikastetxearen hizkuntza-proiektuan hizkuntzen Europako esparruaren maila bakoitzari lotutako ikaskuntza-estrategiak indartzea, ikasleek, aurreikusita dagoenez, **DBH amaitzean gutxienez B1 maila eta Batxilergoan B2 maila** eskura ditzaten.

Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak kontuan hartu beharko du nola aurre egin behar zaion beren familia-ingurunean euskararik hitz egiten ez duten ikasleentzat honek dakarren defizitari: hezkuntza-jarduera ziurrenik ez-presentzialak eta, ondorioz, ikasgelaren eta ikastetxearen hizkuntza-interakzio jarraiturik eta zuzenekorik ez duenak.

1.3.- JASANGARRITASUN-IRIZPIDEAK

2020rako Europako Estrategiarekin eta 2002-2030erako Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiarekin bat etorriz, ikastetxeek modu sistematikoan sartu behar dituzte jasangarritasun-irizpideak eta eskola-bizitzan baliabideen kontsumoa kontrolatzeko eta murrizteko neurriak.

1.4.- BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Ikastetxeek hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioko proiektuak garatuko dituzte, eta ikasgai guztien curriculumaren diseinuan eta garapenean integratuko dituzte Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta *Euskal hezkuntza-sistemarako hezkidetzako II. Plana, berdintasuna eta tratu ona lortzeko bidean (2019-2023*) planean jasotako hezkidetzako helburuak.

1.5.- BIZIKASI EKIMENA

Ustezko jazarpen-kasu batengatik esku hartzeko eskaria egonez gero, kontuan hartuko dira Hezkuntzako sailburuordearen ebazpen berrian ezarritako jarraibideak. Ebazpen horren bidez, EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan berdinen arteko tratu txarren aurrean jarduteko protokoloaren aplikazioa erregulatzen da, Bizikasi ekimena abian jarri zenetik ezarritako aldaketekin bat etorriz. 2020-21 ikasturteari begira, Bizikasi ekimenak nobedade hauek ditu:

Antolamendu- eta jarrera-alderdiak

- 2019-20 ikasturtea modu egokian agurtzeko zailtasunak kontuan hartuta, 2020-21 ikasturtearen hasieran harrerarekin lotutako alderdi guztiak bereziki zaintzea.
- 2020-21 ikasturterako ikasleen sarrera eta ongietorria planifikatzea eta, ahal den neurrian, trantsizio segurua ziurtatzea tutoretza, irakasleak eta ikastetxea aldatzen diren kasuetan.
- Ikasturte berriaren hasieratik, arreta enpatikoa ematea ikasleen errealitate eta testuinguru sozioemozional guztiei.
- Ikasleekiko lotura afektiboa indartzea eta eskolako kide izatearen sentimendua bultzatzea. Ikasleak emozionalki seguru sentitu behar du, eta, horretarako, lotura positiboa izan behar du erreferentziazko pertsonekin. Lotura horrek sendatu eta konpondu egiten du eta, ikasleekiko lotura emozionalera bideratuta, hezkuntza-esparruarekin lotzen ditu haiek.

- Erantzukizun partekatuak eta autorregulazioak errealitate berrira egokitzeko duten garrantzia lantzea: elkarreragin sozial egokirako arauak, ikastetxeko mugimenduak erregulatzen dituzten arauak, espazioen kudeaketa...
- Erantzukizunaren eta elkartasunaren arteko mendetasuna nabarmentzea. Jokabide arduratsuak eragin positiboa du ongizate kolektiboan. Gure hurkoekiko solidaritatez jarduteko lehen urratsa da.
- Ikasturtearen hasiera da samurtasuna, maitasuna, adeitasuna, errespetua, laguntza eta elkarrekiko zaintza finkatzeko unea. Azken batean, elkarbizitza bizitzeko eta bizimodu hori eskolara eramateko unea da.

Curriculuma garatzeko alderdiak

- 2019-20 ikasturtearen amaieran berritzeguneek aurkeztutako proposamenaren bidez egindako diagnostikoari berriro heltzea: *Osasun-larrialdiko egoeran zeharkako konpetentziak garatzea: egoeraren diagnostikoa eta hezkuntzako esku-hartzea, ikasleek bizi izan duten testuinguru sozioemozionala ezagutzeko*.
- Ikasturtea amaitu baino lehen informazioa biltzea eta diagnostikoa egitea ezinezkoa izan den kasuetan, ikasle eta/edo familia horiekiko komunikazioa lehenbailehen ezartzea.
- Balorazioan hautemandako eta ikasturte amaierako txostenean jasotako behar sozioemozionalei erantzutera bideratutako hezkuntzako esku-hartzea gauzatzea.

Esparru sozioemozionala eta talde-kohesioa lantzeko proposamena: ikasitakotik abiatuz bide bati ekitea dokumentuan diseinatu eta jasotako proposamen didaktikoak planifikatu eta inplementatzeari ekitea. Helburua da ikasleen alderdi sozio-emozionalak lantzea, baita talde-kohesioko dinamikak abiaraztea ere, haiek behar bezala garatu ahal izateko.

Ziberjokabidea eta ziberjazarpena

COVID-19aren konfinamenduaren ondorioz bizi izan den egoerak lehen planoan jarri du eskola-jazarpenaren modalitate hori, zeinak teknologia berriak erabiltzen baititu jazarpenarekin lotutako jokabideak gauzatzeko. Ondorioz, ikastetxeetan egiten diren behaketak areagotu egin behar dira, batez ere gure ikasleekiko harremanak modu presentzialean ematen ez diren aldietan. Era berean, funtsezkoa da irakasleen —batez ere, tutoreak eta Bullyingaren Aurkako Taldeko (BAT) kideak— eta familien lankidetza egoera horietan orientatzeko, laguntzeko eta esku hartzeko.

Fenomeno horren aurrean arreta emateko eta hezkuntza-arloan jarduteko, honako hauek ditugu:

- Ziberbullyingaren aurrean eskolan jarduteko protokoloa. Horrek ez baitu ordezkatzen eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloa, Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean erregulatua, baizik eta osatu egiten du.
- Detekziorako materialak eta jarduteko gidak, Bizikasiren orrian.
- Kasuak ebazteko prozesua kudeatzen lagunduko duten orientabide espezifikoak (prestatzen).

1.6.- JARDUTE-PROTOKOLOA, HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTEKO, ETA HEZKUNTZA-ESPARRUAN ETA ADINGABEEN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA KOORDINAZIORAKOA [1]

Ikasturtearen hasieran hezkuntza-komunitate osoak protokoloa ezagutzen duela bermatzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Gainera, ikastetxeek ikasleen legezko arduradunei ikasturtearen hasieran bidaltzen dieten informazioan testu hau ere jarriko dute:

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra

"Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Eusko Jaurlaritzaren Legearen arabera (otsailaren 18ko 3/2005 Legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren funtzioak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinaraziko die gizarte-zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari".

Ikastetxeetan mota horretako edozein egoera gertatzen bada, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinaraziko zaio.

[1] Eusko Jaurlaritza (2016). Jardute-protokoloa, hezkuntza-esparruan haur eta nerabeek jasan ditzaketen babesgabetasun-egoerak eta tratu txarrak, abusua eta sexu-jazarpena prebenitzeko eta egoera horietan jarduteko, eta hezkuntza-esparruan eta adingabeen babesean esku hartzen duten eragileen arteko lankidetza eta koordinaziorakoa.

1.7. IKASTETXEEI ZUZENDUTAKO PROTOKOLOA, IKASLE TRANSEI EDO GENERO PORTAERA EZ-NORMATIBOA DUTENEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO[2]

Hezkuntza-komunitatearen ardura da ikastetxeak errespetu-espazioak izatea, alegia, genero-identitatea edo sexu-orientazioa direla-eta presiorik, erasorik edo diskriminaziorik gabeko eremuak.
Jaiotakoan egotzitako sexuarekin bat ez datorren nortasun sexuala duten adingabeei eta haien familiei, eta sexuaren arabera sozialki espero diren genero-jarduerekin bat ez datozen ikasleei laguntzeko prozesuan ikastetxeak orientatzeko erabiliko da protokolo hori.

1.8. IKASKETAK ATZERRIAN

EAEn gero eta familia gehiagok hartzen dute beren seme-alabek ikasturte batean atzerriko herrialde batean ikasteko erabakia. Erabakia hartu aurretik, Sailaren web-orriko esteka honetan jasotako orientabideak eta dokumentazioa arretaz kontsultatzea gomendatzen da:

https://www.euskadi.eus/unibertsitatez-kanpoko-irakaskuntzako-atzerriko-titulu-eta-ikasketak-homologatu-eta-baliozkotzea/web01-a3hakade/eu/

Kontuan izan behar da ikasle horiek euskal hezkuntza-sisteman berriro sartu ondoren:

- Egindako eta gainditutako ikastaroa **DBHko 4. mailaren aurreko** ikasturteetako edozeinen baliokidea balitz eta, ondorioz, **titulua** lortzea **ez badakar**, honako premisa hauek bete beharko dira nahitaez:
    - Ikasturtea **amaitu** bada, urteko matrikulazio-aldian esleitu zaien ikastetxean matrikulatuko dira, edo dagokion lurraldeko eskolatze-batzordeak esleitzen dionean.
    - **Ikasturtean zehar** sartzen badira, ikasle horiek ikastetxe batean matrikulatuko dira, aipatutako lurraldeko eskolatze-batzordearen bidez, eta bertan jarraituko dute prestakuntzarekin, eta ikasturtearen ebaluazioa egingo dute sartu diren taldeko gainerako ikasleek bezala. Ikasleak matrikulatuta egon den atzerriko ikastetxeak emandako dokumentazioa aurkeztuko balu (bere hezkuntza-prozesuari buruzko informazioarekin), kontuan hartuko da, **lekualdatzeagatiko txosten ofiziala** bezalaxe, ikasturtean zehar EAEn ikastetxe-aldaketen kasuan egin ohi dena.

[2] Eusko Jaurlaritza (2016). Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez-normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko.

- Egindako eta gainditutako ikasturtea **DBHko 4. mailaren edo Batxilergoko 2. mailaren** baliokidea bada, dagokion homologazioa egin beharko da Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko graduatu-titulua lortzeko.

    - Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua homologatzea eskatu duten eta **Batxilergoko 1. mailan** matrikulatu nahi duten ikasleen kasuan, eskaera hori egin izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eta kontuan izan beharko da matrikula behin-behinekoa izango dela eta **ez dela behin betikoa izango homologazioa baieztatu arte**. **Azkenean homologazioa baieztatzen ez bada, matrikula baliogabetu egingo da, eta, hortaz, ikaslea ezingo da Batxilergoko 1. mailan ebaluatu.**
    - Batxilergoko 1. mailaren baliokide diren ikasketak egin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea duen ikaslearen kasuan, **Batxilergoko 2. urteko matrikula** behin-behinekoz egin ahal izango du, Batxilergoko 1. mailaren homologazioa eskatu izanaren ziurtagiria aurkeztuta. **Homologazioa berretsi ondoren, matrikula behin betikotzat joko da. Azkenean homologazioa negatiboa bada, matrikula baliogabetu egingo da, eta, hortaz, ikaslea ezingo da Batxilergoko 2. mailan ebaluatua izan.**

- Ikasleek ikasketak atzerrian eten behar izan dituzten eta ikasketak jarraitu ahal izateko Bigarren Hezkuntzako Gradudunaren titulua edo Batxilergoko 1. mailako homologazioa behar duten salbuespenezko eta aurreikusi gabeko kasuetan, ezohiko proba libreak gaitu ahal izango dira titulua lortzeko eta/edo Batxilergoko 1. maila gainditzeko. Proba horiek Hezkuntza Sailburuordetzaren ebazpenaren bidez erregulatuko dira.

2. IKASLEAK

2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA

Zuzendaritza-taldeak ikasle guztien sarbidea, iraunkortasuna eta parte-hartzea sustatu behar ditu, batez ere hezkuntza- eta gizarte-bazterkeriaren aurrean kalteberenak direnena, eta kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaini behar du, aukera-berdintasunean, **bizikidetza positiboa bultzatuta**.

2019-20 ikasturtean irakaskuntza ez-presentzialean izandako esperientziak —Euskadiko Eskola Kontseiluak egindako analisia ikusita, eta Ikuskaritza Zerbitzuak ikastetxeetatik bidalitako datuen bidez— islatzen du ikasle gehienek erantzun ahal izan diotela presentzialtasunik ezaren egoerari. Hala ere, **ikasturtearen hasieratik arreta berezia jarri**

behar da curriculumaren, harremanen, ekonomiaren, emozioen eta abarren esparruan eragin negatiboa jasan duten ikasle eta familiengan.

Hezkuntza-inklusioa hezkuntzarako eskubidearen eskakizuna da, eta, hori lortzeko, irakasle taldeak honako alderdi hauek **kontuan hartu beharko ditu orientatzailearekin lankidetzan**:

- Programazioa egokitu beharko da ikasleek ikasgaietan behar dituzten laguntzak emateko. Kontuan hartu beharko dira, bereziki, aldi ez-presentzialean eragina jasan ahal izan duten funtsezko edukiekin lotutako beharrak.
- Ikasle bakoitzak etxean dituen baliabideei buruzko informazio xehatua lortuko da, laguntza osagarriak aurreikusteko eta, horrela, beste konfinamendu bat gertatuz gero harremanik ez izateko arriskua desagerrarazteko.
- Ikasleen aniztasunari erantzungo dioten ikaskuntza-metodologia eta -estrategia inklusiboak erabiliko dira, ikasle eta irakasleen arteko interakzioa ahalbidetuta. Horretarako, IKTak baliatuko dira.

2.2.- HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO PREMIA ESPEZIFIKOAK (HLPE) DITUZTEN IKASLEAK

Ikasturte honetan **arreta berezia jarri behar zaie, lehendik laguntza-premia espezifikorik izan ez arren, orain, konfinamendu-egoeraren eta irakaskuntza ez-presentzialaren ondorioz, premia horiek izan ditzaketen ikasle guztiei**. Hala, diagnostikatu edo baloratu gabeko baldintza pertsonalekin lotutako zailtasunak topa ditzakegu, hala nola desgaitasunarekin zerikusia izan dezaketenekin edo ikaskuntza-prozesuekin lotura handiagoa dutenekin. Zailtasunak oso askotarikoak izan daitezke, hala nola, interakziokoak, erlaxatzekoak, mezuak ulertu eta sortzekoak, irakurri eta idaztekoak, kalkulu aritmetikoak egitekoak, arretari eustekoak edo inpultsibitatea kontrolatzekoak, eta zailtasun horiek ikasteko erritmo motelagoa edo hizkuntza-arazo espezifikoak eragin ditzakete. Kasu guztietan, lehentasunezkoa da zehaztea zein diren laguntza-beharrak eta nola eskainiko den laguntza hori, bi agertoki posible kontuan hartuta: irakaskuntza ez-presentziala eta erdipresentziala.

Orobat, topa ditzakegu orain arte beren gaitasun pertsonalak eskola-testuinguruan garatu ahal izan dituzten ikasleak, baina orain zailtasun batzuk dituztenak baliabide digitalak erabiltzeko, beren burua antolatzeko, arretari eusteko edo emozioak erregulatzeko. Araudiaren arabera, ezin dira hartu laguntza-premia espezifikoak dituzten ikasletzat, baina ez dago zalantzarik zailtasun horiek arriskuan jar dezaketela haien aurrerabidea. Hortaz, behar horiek, baita ere, egoki zehaztu behar dira eta hezkuntza-erantzun egokia eman behar zaie.

Deskribatutako egoeren edo antzeko beste batzuen aurrean, irakasleek zantzuak edo ebidentziak baldin badituzte ikasleren batek aipatutako zailtasunak izan litzakeela,

lehenbailehen eman beharko diete horren berri ikastetxeko irakasle orientatzaileei, ikaslearen beharretara egokitutako ***jardun-plan pertsonalizatua*** abian jartzeko, berritzeguneko dagokion aholkularitza-zerbitzuarekin lankidetzan. Balorazio psikopedagogikoa edo ezohiko curriculum-neurriak (curriculumera sartzeko egokitzapenak, indibidualak eta esanguratsuak, zabaltzekoak edo Gela Egonkorren Curriculum Proiektua...) eskatzeak hezkuntza-erantzun egokia erraztuko du. Gainera, ikasgelan edo ikasgelatik kanpo hartzen diren neurri espezifikoak zailtasun horietara egokitu beharko dira, eta ohiko irakasleek eta ikasle horiekin lan egiten duten laguntzako profesional guztiek aplikatu beharko dituzte.

a) **Curriculum-egokitzapen indibidual esanguratsuak eta Gela Egonkorren Curriculum Proiektua (GECP) aurkezteko epeak**
   - Ikastetxeko zuzendaritzak **urriaren 19a** baino lehen bidaliko ditu dagozkion proposamenak.
   - Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezietako aholkularitza-zerbitzuak **azaroaren 9a** baino lehen emango du txostena.
   - Hezkuntza Ikuskaritzak **azaroaren 30a** baino lehen bidaliko du oniritzia.
   - Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak **abenduaren 7a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei curriculum-egokitzapena eta/edo GECPa onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, **abenduaren 15a** baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

b) **Lehen Hezkuntzan adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak aurkezteko epeak**
   - Ikastetxeko zuzendaritzak **urriaren 19a** baino lehen tramitatuko du proposamena.
   - Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezietako aholkularitza-zerbitzuak **azaroaren 9a** baino lehen emango du txostena.
   - Hezkuntza Ikuskaritzak **azaroaren 30a** baino lehen bidaliko du oniritzia.
   - Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak **abenduaren 7a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei neurria onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, **abenduaren 15a** baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

c) **Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eskolatzea aurreratzeko edo eskolatze-aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak**
   - Ikastetxeko zuzendaritzak, etapa hasi aurretik, eskolatze-aldia aurreratzeko edo malgutzeko proposamena tramitatuko du **maiatzaren 28a** baino lehen.
   - Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezietako aholkularitza-zerbitzuak **ekainaren 4a** baino lehen emango du txostena.
   - Hezkuntza Ikuskaritzak **ekainaren 11** baino lehen bidaliko du oniritzia.

- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak **ekainaren 17a** baino lehen tramitatuko du dokumentazioa.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak **ekainaren 22a** baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei proposamena onartutzat jotzen den ala ez, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei horren berri eman diezaien **ekainaren 25a** baino lehen, ebazpenaren kopia erantsita.

d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek curriculumera sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak

Baliabide materialak berritzegunearen bidez eskatuko dituzte ikastetxeek. Horretarako, Hezkuntza Premia Berezietako aholkularitza-zerbitzuak dagokion ebaluazio psikopedagogikoa egingo du, entzumen-desgaitasuna duten ikasleen terapeuta okupazionalarekin eta/edo koordinatzailearekin batera, eta inplikatutako gainerako profesionalekin lankidetzan.

Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari jakinaraziko zaio, eta hark lurralde osoko premien baterako eskaera bidaliko dio Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako Hezkuntza Bereziko arduradunari. Berritzeguneak premiak baloratuko ditu eta baliabideen proposamena Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari tramitatuko dio **apirilaren 9a** baino lehen.

Maileguan hartutako materiala mantentzea ikastetxearen ardura izango da, eta baldintza egokietan itzuli beharko du (horretarako, konpromiso hori zehaztuko duen dokumentua beteko da). Ikastetxeak ordaindu beharko ditu curriculumera 150 eurotik beherako kostua duten materialak.

e) Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako eskolatze-aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak.

Desgaitasunarekin lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek prestakuntza-ziklo bateko moduluak banatu ahal izango dituzte, horiek egiteko eta horien ebaluaziora eta kalifikaziora aurkezteko, eta ziklo horretako eskolatze arruntean aurreikusitakoaren denbora bikoitza izango dute.

- Ikastetxeko zuzendaritzak, ikasturtea hasi baino lehen, Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunari tramitatuko dio eskolatzea malgutzeko proposamena, maiatzaren 28a baino lehen.
- Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezietako aholkularitza-zerbitzuak txostena egingo du ekainaren 4a baino lehen.
- Hezkuntza Ikuskaritzak ekainaren 15 baino lehen bidaliko du oniritzia.

- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-arduradunak ekainaren 22a baino lehen tramitatuko du dokumentazioa.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ikastetxeei jakinaraziko die proposamena onartutzat jotzen den ala ez, ekainaren 30a baino lehen, ikastetxeak ikaslearen legezko arduradunei horren berri eman diezaien, ebazpenaren kopia erantsita.

Nolanahi ere, zuhurtasun-neurri orokor gisa, arreta egokia eman beharko zaie laguntza-premia espezifikoak dituzten ikasleei, baldin eta 2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekoan konfinamendu-egoerak eta irakaskuntza ez-presentzialak zailtasunak areagotu edo beste batzuk agertzeko bide eman badute.

Laguntza-beharrak zehaztu ondoren, beharrezkoa da **ahalik eta doikuntza arruntak lehentasunez erabili behar direla nabarmentzea, unibertsalagoak direnak eta antzeko egoeretara hobeto orokortzen direnak barne**.

Ildo beretik, Sailak hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleekin jarduteko proposamen multzo bat jarriko du aurki ikastetxeen eskura, *Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleekin esku hartzeko proposamen inklusiboak* izenpean. Proposamen horiek laguntza-zerbitzuetako profesionalen talde zabal batek, laguntza espezifikoko profesionalek eta, era berean, hirugarren sektoreko profesionalek egingo dituzte. Ahalegin handia da, eta espero dugu murgilduta gauden salbuespenezko inguruabar hauetan ikasle horiei erantzun egokia emango diela.

Hala ere, argitalpen horren zain, komeni da zehaztapen bana egitea laguntza-premia espezifikoak dituzten bi ikasle talderi buruz:

Adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak

Gaitasun handiak dituzten ikasleekin esku hartzeko planak 2019-20 ikasturterako aurreikusita zuen ***Gaitasun handiak dituzten ikasleak detektatu eta identifikatzeko protokoloa*** baliozkotzeko pilotaje bat. Pilotaje hori diseinu-fasean eten egin denez, 2020-21 ikasturtea Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan antolatutako ekimen horren lekuko izatea espero da.

Baldintza pertsonal edo eskola-historiako baldintza bereziak dituzten ikasleak

Etxez etxeko laguntzaren kasuan, kontuan hartu beharko da esku-hartze hori eten egingo dela 2. eta/edo 3. agertokietan jarduera presentziala eteten bada. Hortaz, kasu horretan, baliabide digitalen bidez arreta ematea aurreikusita eduki behar da, gainerako ikasleekin bezala.

Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea

Ikasleak onartzeari eta eskolatzeari buruzko urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan ezarritakoaren arabera egingo da (2018ko urtarrilaren 12ko EHAA).

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan edo Lehen Hezkuntzan ikaspostu bat behar duten EAEra iritsi berrien kasuan, ikastetxeak aplikazio informatikoaren bidez kudeatuko du Eskolatze Batzordeari zuzendutako eskaera, ohiko menuaren bidez: Matrikula/Eskolatze Batzordea. Ikastetxeek edozein familiaren eskabidea tramitatu beharko dute, familiak eskatutako ikastetxea edozein dela ere.

Berandu sartu diren ikasleek hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak badituzte, ebazpen honetan xedatutakoaren arabera jardungo da.

*Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei arreta emateko II. plana*ren 4.1 helburuaren arabera, hizkuntza indartzeko programa amaitu duten ikasle guztiek banakako jarraipen-programa bat izan beharko dute hurrengo hiru ikasturteetan.

2.3. ANIZTASUNARI ARRETA EMATEKO PROGRAMAK: HEZKUNTZA-INDARGARRI ESPEZIFIKORAKO PROGRAMA, CURRICULUM-ANIZTASUNAREN BIDEZ IKASKUNTZA ETA ERRENDIMENDUA HOBETZEKO PROGRAMAK ETA ESKOLATZE-PROGRAMA OSAGARRIAK

Hezkuntzako sailburuordearen 2020-21 ikasturterako jarraibideen arabera antolatuko dira, programa horiek baimentzea eskatzeko.

Zuzendaritzak bermatu beharko du aipatutako proiektuak garatzea bere gain hartzen duten irakasleek konpetentzia digital egokia izango dutela proiektuei 2. eta 3. agertokietan ekin ahal izateko. Gainera, lehen hiruhilekoan beren ikasleekin lan egin beharko dute; jarduera ez-presentziala bada, ikasleen ikaskuntza-prozesua online modalitatean jarraitzeko beharrezko konpetentzia izan dezaten.

2.4. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARLOETAKO LANKIDETZA-ESPARRU OROKORRA

2018ko maiatzean, *Hezkuntza - Osasun mentalaren elkarlanerako oinarri orokorra* jarri zen abian[3]. Oinarri horretan, zerbitzu horiekiko koordinazioari dagokionez lortutako adostasunak adierazten dira. Halaber, jaso egiten dira deribazio-ibilbideak, informazioa trukatzeko prozedurak, txosten-ereduak eta bi sistemetako profesionalen arteko harremanen inguruko zenbait gomendio, jardunbide profesional egokia erraztu dezaketenak. Bai ikastetxeek bai laguntza-zerbitzuek erraztu egin behar dute lankidetza-esparru hori garatzeak berekin ekar dezan esparru horretan arreta hobea ematea ikasleei eta haien familiei.

2.5. ESKOLA-ORDUTEGIA

Egutegiari, ordutegiari eta lanaldiari buruzko erreferentzia orokorrak Hezkuntzako sailburuordearen 2020ko ekainaren 12ko Ebazpenean ezarri dira. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoen 2020-2021 ikasturterako Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-etapetarako eskola-egutegia egiteko arau osagarriak ematen dira.

Irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko, hezkuntza-jarduerak eta eskola-denborak berrantolatzea proposatzen da. Hortaz, beharrezkoa izango da indargarri-programak proposatzea eta ikasleek konpetentziak eskura ditzaten bultzatzea, euskararen erabilera eta zeharkako beste konpetentzia mota batzuk gara ditzaten sustatuta.

Inguruabar horrek eragina izan dezake irakasleen ordutegiaren eta ikasleen taldekatzeen antolamenduan, eta hori ikastetxearen urteko planean zehaztu beharko da; goizeko eskola-egunaren ondoren, behar duten ikasleei indartzeko espazioak eskaini ahal izateko, ikasturte osoko eskola-denbora murriztu gabe eta irakasleen lan-baldintzak urratu gabe.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak zehaztuko ditu saio horiek antolatzeko irizpideak, baita egoera bakoitzari erantzuteko espazioak eta denborak ere. Azken batean, beharrezkoa da denborak antolatzeko formula berriak, sormenezkoak eta berritzaileak bilatzea, ikasle guztien beharrei erantzungo zaiela bermatzeko, Euskadiko Eskola Kontseiluak berak gomendatzen duenez.

---

3 https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_neespeci/adjuntos/18_nee_110/1102018001e_elkarlana_hezkuntza_osasun_mentala_e.pdf

2.6. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA

Ikasleen bertaratzea kontrolatzeko ohiko erreferentziak (Ikus 2019-20 ikasturteko ebazpena) alde batera utziz, eman daitezkeen 2. eta/edo 3. agertokietan bertaratze presentziala edo online bertaratzea eman daitekeela hartu beharko da kontuan.

Baliteke egoeraren batean ikasle guztiak aldi berean ikastetxera joan behar ez izatea, eta ikasle ahulenentzako edo zailtasun handienak dituztenentzako online irakaskuntza lehenestea, antolakuntzan aldaketak gertatuz. Horregatik, arreta emateko formula malguak aurreikusi beharko dira, arlo bakoitzerako arauz finkatutako guztizko ordu ofizialak kontuan hartuz. Ikastetxe bakoitzak diseinatu eta bere Urteko Planean sartu behar duen jarduketa-protokoloan, horixe da aztertu beharreko alderdietako bat.

Bestetik, ikasleen ez-bertaratzeak kontrolatzeko prozeduran arreta berezia ipini beharko da, konfinamenduan eta 2019-2020 ikasturteko azken hiruhilekoan irakaskuntza ez-presentzialak eragindako ikasteko motibazioak behera egin izanaren ondorioz ikasle bereziki ahulak eskola-absentismora ez heltzeko. Horretarako, ohiko absentismo-patroiak eta gerta daitezkeenak alderatzea gomendatzen dugu, ahalik eta denbora laburrenean familiarekin eta ikaslearekin berarekin neurriak hartzeko.

2. edo 3. agertokian aurkitzen bagara, absentismo presentzialeko kasuez gain, zehaztuko diren bitartekoen bidez, ikasleek ikaskuntza-prozesua jarraitzeko zailtasun handiak dituztela edo prozesua behar bezala jarraitzen ez dutela erakusten duten zantzuak daudela jakinaraziko da. Horretarako, OHARRAK ETA HUTSUNEAK aplikazioan espazio bat ipiniko da. Bertan, egoera horren berri emango da, eta horri lotuta egon daitezkeen arrazoiak adieraziko dira.

2.7. ERLIJIOA

Erlijio katolikoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasgaia izango da. Ikastetxeek derrigorrez eskaini beharko dute eta ikasleek nahi badute aukeratuko dute.

Beste erlijio batzuen irakaskuntza Estatu espainolak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Juduen Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetza-akordioetan eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakora egokituko da.

2.8- LANBIDE-HEZIKETAKO PROIEKTU-MODULUA. GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK.

Proiektu-moduluaren helburua da Heziketa Zikloan eskuratutako gaitasunak eta konpetentziak integratzea; horretarako, zeharkako konpetentziak garatzen lagunduko duten metodologiak erabiliko dituzte, hala nola talde-lana, ekimena, erantzukizuna eta komunikazio-estrategiak.

Proiektu-modulua heziketa-zikloaren azken zatian garatuko da, eta indibidualki kalifikatuko da, Lantokiko Prestakuntzako (LP) lanbide-modulua egin ondoren, eta ebaluazioaren emaitza edozein izanda ere. Hala, enpresan egindako praktikaldian eskuratutako gaitasunak modulu horretan sartu ahal izatea da helburua. Oro har, LParen aldi berean egingo da, baina ez egun eta ordu berberetan. Edonola ere, beste aldi batzuk ere ezarri ahal izango dira, betiere metodologia- edo antolamendu-proiektuetan justifikatzen badira. Halako kasuetan, aldi berri horiek onartu eta ikastetxearen curriculum-proiektuan jaso beharko dira.

Lan-esperientzia izan dutelako LPko modulutik erabat salbuesteko kasu berezian, ikasleek proiektuaren modulua egin ahal izango dute, ikastetxean 1. zein 2. mailako modulu guztiak gainditu ondoren. LP modulua egiteari uko eginez gero, proiektu-modulua ezin izango da ebaluatu LP modulua bukatu arte.

Lanbide Heziketako ikastetxeek beren curriculum-proiektuan adierazi beharko dituzte goi-mailako heziketa-zikloetan proiektu-modulua gauzatu, jarraipena egin eta ebaluatzeko irizpide orokorrak. Klaustroari dagokio irizpide horiek onartzea.

Irizpide orokor horiek zehaztu egin beharko dira, eta sail bakoitzeko programazioetara eraman, departamentuaren barruan onartu ondoren. Didaktika-departamentu bakoitzeko buruak arduratuko dira onartutako irizpideak zuzen aplikatzeaz. Ikasketa-buruak ikasleen proiektuen garapena gainbegiratuko du eta bertan sor daitezkeen gorabeherak ebatziko ditu. Ikastetxeko irakasleek ikasleen jarraipena eta tutoretza egiteko eredua jaso beharko da onartutako irizpideen artean. Lanbide Heziketako ikastetxeek ikasleei ikastetxean arreta eskaintzeko eredu bat aurreikusi ahal izango dute, datetan bat datorrena proiektu-moduluarekin eta LParekin.

Proiektuak bakarka edo taldeka egingo dira, heziketa-ziko bakarrerako edo gehiagotarako, parte hartzen duten didaktika-departamentuekin adostu ondoren. Heziketa-ziklo bereko edo diferenteko ikastetxe bat baino gehiagoren artean ere definitu ahal izango dituzte. Zikloko beste modulu batzuetara ere lotu ahal izango dira, proiektutan oinarritutako ikaskuntza-metodologien bidezko proiektu globalagoak garatuz. Proiektuetan ikasle bakoitzak landu behar dituen alderdiak ikasle hori ikasten ari den hezkuntza-zikloarekin lotuko dira.

Proiektuko modulu profesionala definitzeko, heziketa-zikloaren esparruko lan-jardueraren ezaugarriak hartuko dira kontuan. Horien helburua da eurei lotutako heziketa-zikloko konpetentziak eta ezagutzak barne hartzea. Halaber, tituluarekin erlazionatutako aldagai teknologikoak eta antolakuntzari buruzkoak hartuko ditu kontuan.

Proiektuak definitzeko irizpideak didaktika-departamentuak prestatu eta onartuko ditu. Eta ikasle bakoitzak tutoreak erabakitako proiektua egingo du. Erabaki horien akta egingo da. Akta hori ikastetxeko ikasketa-buruari igorriko diote.

Proiektu-modulua antolatzeko, banakako eta taldeko tutoretzan oinarrituko dira, tutoretza hori esleitzen dioten modulu horretan irakaskuntza-eskuduntza duten irakasleen eskutik. Horretarako, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak finkatutako irizpideetan oinarrituko dira.

Heziketa-ziklo bakoitzean proiektu-modulu hori egin behar duten ikasle guztientzako egingo du tutoretza kolektiboa taldeko tutoreak. Helburu hau izango du: ikasleek modulua zuzen garatu dezaten, proiektu-ereduaren xedeei, proiektu motei eta beste informazio garrantzitsu bati buruzko xedeen inguruan orientatzea.

Banakako tutoretzaren barne hartuko dira proiektuaren inguruko orientazioa, aholkularitza eta zuzendaritza. Hala dagokionean, banakako tutoreak koordinatuko ditu proiektuan lankide diren enpresa edo enpresak, proiektua enpresen laguntzarekin egitea erabaki bada. . Ikastetxeek tutoretza horren arretarako aurrez aurreko irakaskuntza-arduraldiko aldiak ezarriko dituzte, xede horretarako emandako ordu-kredituaren edo zuzendaritza-taldeak esleitutako beste edozeinen kontura. Lantokiko prestakuntza egiteko aldian ikasleak ikastetxera joan beharreko egunetan izan daiteke (martxotik ekainera bitartean, adibidez), baina haren egunak eta orduak ez dira bat etorriko lantokiko prestakuntza egiteko ikaslea enpresara joatea finkatuta dituenekin. Ikasleen tutoretza presentziala komunikazio telematikoz osatu ahal izango da, behar izanez gero.

Ikasleak baino ez dira lanen jabeak izango. Hala ere, entregatutako materialen kopia bat ikastetxeak gordeko du. Kopia hori irakasteko erabili ahal izango dute.

LPko modulua egiteko ohikoak ez diren aldiak baimentzen badituzte, ikastetxeko zuzendariak proiektu-modulua egiteko eta ebaluatzeko epeak egokituko ditu.

2.9. IKASLEEN EBALUAZIOAREN INGURUKO ALDERDIAK.

Ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko prozesuaren erregulazioa abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuan (2016-01-15eko EHAA) eta irailaren 6ko 127/2016 Dekretuan (2016-01-15eko EHAA) araututa dago.

Ikasturtea berriro eteten bada, aurtengo ikasturtean kontuan hartu beharko dira ikasleen ebaluazioa egokitzeko aurreikusten diren tresna, protokolo eta neurri motak.

Aspectos esenciales del curriculum dokumentuak funtsezko elementuen erreferentzia emango du, beharrezkoa bada, esku-hartzea berriro bideratzeko helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak eta egokiak ikusten diren adierazleak aukeratuz.

Horregatik, datorren ikasturterako esparru espezifiko bat da curriculumaren funtsezko alderdiak eta horren ebaluazioa identifikatzea, diziplinarteko diseinuen alde eginez eta ikastetxeen parte-hartze aktibotik abiatuta —euren autonomian eta premia zehatzetan oinarritua— zeharkako konpetentziak indartuz, Euskadiko Eskola Kontseiluak ere gomendatzen duen bezala.

Euskarazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzian eta konpetentzia digitalean emaitzak hobetu behar dira. Lehenengo kasuan, euskara ikasteko hizkuntza delako eta konpetentzia guztiak lortzeko eragin zuzena duelako; eta bigarren kasuan, eten digitalak hezkuntzan aukera-berdintasuna eragotzi ezin duelako.

Helburu horiek baldintzatuko dituzte eskuratzen ez diren helburuak ebaluatzeko, kalifikatzeko, sustatzeko eta berreskuratzeko prozesuetan erabilitako prozedurak eta erreferentziak. Hala, heziketarako zein esparru honetan irakasle taldea koordinatzeko eta erabakiak hartzeko erreferentzia izango dira.

Jada aipatu da irailean hasierako ebaluazio bat egin beharko dela, ikasleen abiapuntua zein den ezagutzeko, eskuratu ez dituzten konpetentzia batzuk indartzeko edo berreskuratzeko, edo jada eskuratu dituztenetan sakontzeko (horiek dagoeneko 2019-20 ikasturterako berriro programatutako funtsezko elementutzat jo dira), eta, era horretan, datorren ikasturterako planteatutako helburuak lortzeko bidean urratsak emateko. Hasierako ebaluazio horren esparruan, ikasturte-amaierako ebaluazio-txostenak ezinbestekoak izango dira ikasle bakoitzaren informazioarekin alderatzeko.

2019-2010 ikasturte-amaierako Hezkuntza Planean jada adierazi zen banakako txostenean **ikasleek eskuratu ez dituzten behar-beharrezko ikaskuntzak jaso behar zirela eta 2020-2021 ikasturtean garatu beharko den Hezkuntza Indartzeko Plan bat gehitu behar dela.**

Euskal Eskola Publikoaren Legean ezarritako autonomia pedagogikoarekin bat etorriz, ikastetxe bakoitzari dagokio helburu horiek zehaztea bere curriculum-proiektuetan eta ikasgelako programazioetan. Curriculumaren zehaztapen hori ikasleen eta agertokiaren ezaugarrietara egokitu behar da, eta, baita ere, une bakoitzeko inguruabar zehatzetara.

Esparru horretan, gerta daitezkeen baldintza bereziak eta horiek ikasleen ebaluazio-prozesuan izan dezaketen eragina hartu beharko dira kontuan. Ikasleen aurrerapenen informazio-erregistroa funtsezkoa izango da behin betiko ebaluazioari eta horren ondorioz ikasturtea amaitzean eskuratuko duten kalifikazioari buruzko erabakiak hartzeko. Kontuan hartu behar da ikaskuntza-ebidentzia horiek biltzeko ohiko tresnak agian ez direla nahikoak izango, eta aztertu beharko dela komeni ote den beste informazio batzuk erabiltzea. 2019-20 ikasturtea amaitzean osatuko den bakarkako txostenak eskuratu ez diren ikaskuntzei buruzko informazioa bilduko du, eta 2020-2021 ikasturtean garatu beharko den berreskuratze-plan bat jasoko du.

Errazagoa izateko **hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak** ebaluatzeko (lanak, proiektuak azterketak egitea eta abar), neurriak hartu behar dituzte ikastetxeek, hala nola: denbora gehiago ematea azterketak eta kontrolak egiteko; esaldiak sinplifikatzea; testuaren formatua ikasleek erabiltzeko modukoa izatea, haien beharren araberakoa; baliabide teknikoak erabiltzea, beharrezkoa bada;azterketakahozegiteaidatzizeginbeharrean,edoordenagailuz,batik bat dislexia edo hiperaktibitatea diagnostikaturik duten ikasleentzat; hasieran edo/eta bukaeran testua irakurtzea; ikasleei laguntza eman ohi dieten langileak azterketan egotea; ebaluazio-irizpideak egokitzea eta abar; azken batean, aukera-berdintasuna bermatzeko neurriak hartzea, ikasleek horretarako eskubidea baitute.

Ikastetxetik kanpoko zerbitzuen mende badago azterketak edo kontrolak egiteko materialak egokitzea (Berritzegunea, Ikusmen desgaitasuna duten ikasleak hezteko zentroak (IBT), entzumen-desgaitasunari erantzuteko profesional espezifikoak…) material horiek formatu aproposetan eta egokitzeko behar besteko denboraz emango dituzte, ikasleek probak ikaskideen denbora eta baldintza berberetan egin ahal izan ditzaten.

Curriculumaren norbanako egokitzapenak dituzten ikasleei dagokien dokumentazio akademikoa Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideen eta «Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa» dokumentuaren arabera egingo da.

- Euskal Herriko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera araupetzeko Dekretuan (uztailaren 11ko 138/1983), Dekretu hori garatzen duen 1983ko abuztuaren 1eko Aginduan eta Hezkuntza Sailburuordetzak horretarako emandako urteko ebazpenetan ezarritakoarekin bat etorriz izapidetuko da **Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiaz salbuesteko aukera**.

Gainera, Hezkuntza Ikuskaritzako Lurralde Buruzagitzak, ikasturtearen hasieran, ikastetxeetako zuzendaritzei idatzi bat bidaliko die. Bertan zehaztuko dira jarraitu beharreko prozeduraren nobedadeak Hezkuntza sailburuordearen urteko Ebazpena betetzeko. Ebazpen

horretan, Euskal Hizkuntza eta Literaturatik salbuesteko aginduak ematen dira. Aipatutako idatzian, honako alderdi hauek zehaztuko dira, besteak beste:

- Familiek egindako salbuespen-eskaerak
- Ikastetxeek eskaerak kudeatzea, eskaera-tipologiaren arabera
- Tramitazioa
- Eskaeren epea

Gogorarazten da Euskal Hizkuntza eta Literatura jakintzagairako salbuespena arlo horren ebaluazioari dagokiola soilik, ez, ordea, horren irakaskuntzari. Hortaz, nahitaezkoa da salbuespena eman zaion ikaslea eskoletara joatea eta aurretiaz ezarritako plan indibidualaren araberako arreta jasotzea. Plan horrek aukera ematen dio matrikulatu den kurtsoari dagokion mailan arian-arian sartzeko.

- **Aldi berean musika- edo dantza-ikasketak eta DBH egiten ari diren ikasleen baliozkotzeak eta curriculumaren egokitzapenak** baliozkotze horiek ezartzen dituen Dekretuan (uztailaren 13ko 194/2010) xedatutakoaren arabera egingo dira.

- **Batxilergoan matrikulatuta dauden eta aldi berean musika- eta dantza-ikasketa profesionalak egiten dituzten ikasleek** bi irakasgai espezifiko baliozkotu ahal izango dituzte, dagoeneko gaindituta dituzten ikasketa horietako bi irakasgairengatik.

  Horretarako, lehen mailan bi irakasgaitan matrikulatu behar dira Anatomia aplikatuaren, Musika-hizkuntza eta -praktikaren eta Musika Analisia I-en artean. Bigarren mailan Musikaren eta Dantzaren Historian eta Musika Analisia II-n matrikulatuko dira. Ikasleen Batxilergoko ikastetxeek ikasleak irakasgai horietan matrikulatuko dituzte, irakasgaiak emateko taldea egon edo ez eta, ondoren, baliozkotu egingo dituzte, baldin eta ikasleek irakasgai horiek gainditu badituzte musika- edo dantza-ikasketa profesionaletan, taula honen arabera:

Baliozkotuko den Batxilergoko irakasgaia	Baliozkotzeko balio duen irakasgaia
Musika-analisia I	Harmoniako bigarren maila
Musika-analisia II	Analisiko lehen maila, Konposizioaren oinarrietako lehen maila edo Konposizio eta moldaketetako lehen maila.
Musikaren eta dantzaren historia	Musikaren historiaren lehen eta bigarren mailak
Musika-hizkuntza eta -praktika	Instrumentu nagusiaren edo ahotsaren hirugarren maila
Anatomia aplikatua	Dantzari aplikatutako anatomiaren lehen eta bigarren mailak
Musikaren eta dantzaren historia	Dantzaren historiaren lehen eta bigarren mailak
Musika-hizkuntza eta -praktika	Musikako hirugarren maila

Baliozkotze eta curriculumaren egokitzapen horiek eskatzeko epea urriaren 15ean amaitzen da. Ikastetxeko zuzendariak azaroaren 2a baino lehen ebatzi behar du eskaera, eta ebazpen horien kopia bidali beharko du, azaroaren 16a baino lehen, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren Ikasketa Antolamenduaren Zerbitzura.

- **Batxilergoaren salbuespen partziala** 1998ko uztailaren 24ko Aginduaren 17. artikuluaren arabera tramitatuko da (1998-08-31ko EHAA). Eta 2010eko uztailaren 26ko Aginduaren 11. artikuluaren arabera (2010-09-09ko EHAA), epe hauek kontuan hartuz:

    - Ikastetxeko zuzendaritzak behar bezala dokumentatutako proposamena (artikulu horien arabera egindakoa) bidaliko du Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-ordezkaritzara irailaren 29a baino lehen.
    - Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-ordezkaritzako zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzari eta Prestakuntza eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko

zentroari (Berritzeguneari) beharrezko txostenak eskatuko dizkie, eta horiek, gehienez ere, bi asteko epean beteko dira, urriaren 16ra arte.

- Hezkuntza Berriztatzeko lurralde-ordezkaritzek Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzara igorriko dituzte horrela betetako espedienteak urriaren 30a baino lehen.
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak dagozkien ebazpenak azaroaren 10a baino lehen igorriko ditu ikastetxeetara, eta ikastetxeek ikasleei emango diete horien berri azaroaren 17a baino lehen.

- **Heziketa-zikloetako ikasleen ebaluazioa** xedapen hauetan xedatutakoaren arabera egingo da:

  - 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2008/03/05eko EHAA), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuak aldatutakoa (2016/02/10eko EHAA).
  - Agindua, 1997ko uztailaren 15ekoa (1997/10/03ko EHAA), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Berariazko Lanbide Heziketa egin dezaten ikasleen ebaluazio-prozesua arautzen duena, 1998ko abenduaren 3ko Aginduak aldatutakoa (1999/02/03ko EHAA) (LOGSE ZIKLOAK).
  - Agindua, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena (2010/03/24ko EHAA).

  - **Ikas-ekinezko araubideko lanbide-heziketa duala ikasten duten ikasleen kasuan**, ebaluazioa modalitate honetarako aurreikusitakoaren arabera egingo da, bai araubide espezifikoan zein ikasleentzako onartutako planetan.

  - Lanbide-heziketa erronketan oinarritutako metodologia aktibo eta kolaboratibo berriekin ikasten ari diren ikasleen kasuan, ebaluazioa modalitate honetarako aurreikusitakoaren arabera egingo da.

- **Heziketa-zikloetako ikasleen salbuespenak, baliozkotzeak eta egokitasunak bideratzean**, xedapen hauetan xedatutakoa beteko da:

  Espainiako hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako modulu profesionalen arteko baliozkotzeak eta hauek aplikatzeko neurriak ezartzen dituen azaroaren 7ko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren 2159/2014 Agindua aldatzen duen urriaren 26ko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren 1055/2017 Agindua, eta Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege

Organikoaren ondoriozko lanbide-heziketa espezifikoko ikasketen baliozkotzeak zehazten dituen 2001eko abenduaren 20ko Agindua aldatzen da.

LOGSE ZIKLOA:

- 2001eko abenduaren 20ko Agindua (2002/01/09ko BOE) uztailaren 9ko 1842/2002 Aginduaren bidez aldatua (2002/07/19ko BOE).
- Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren jarraibideak, 1998ko azaroaren 9koak, heziketa-zikloetako baliozkotze- eta egokitasun-sistemari buruzkoak.

LOE ZIKLOAK:

- 32/2008 Dekretua, otsailaren 26koa, Hezkuntza Sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena (2008/03/05eko EHAA), otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren bidez aldatua.
- Agindua, 2010eko otsailaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena (2010/03/24ko EHAA).
- Heziketa-zikloetako curriculumak ezartzen dituzten dekretuak.

OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA (OLE):

- Otsailaren 28ko 127/2014 Errege Dekretua, hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako ikasketen Oinarrizko Lanbide Heziketaren alderdi espezifiko batzuk arautzen dituena, hamalau oinarrizko lanbide-titulu onartzen dituena, haien oinarrizko curriculumak finkatzen dituena eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako irakaskuntzei dagozkien titulu akademiko eta lanbide-tituluak emateari buruzko abenduaren 4ko 1850/2009 Errege Dekretua aldatzen duena. 19. artikulua. Baliozkotzeak eta salbuespenak.
- 86/2015 Dekretua, ekainaren 9koa, EAEn Oinarrizko Lanbide Heziketa antolatzeari eta ezartzeari buruzkoa. 20. artikulua. – Baliozkotzeak eta salbuespenak.

Epeak: (Otsailaren 2ko 14/2016 Dekretuaren 27 bis artikulua)

Lanbide-moduluen baliozkotzea eta/edo ingeles teknikoaren lanbide-modulutik salbuestea. Ikasleak matrikulatuta dagoen ikastetxeko zuzendariari aurkeztuko dio ikasturte bakoitzaren irailaren 30a baino lehen edo, salbuespenez, eta epe hori amaitu ondoren matrikulatuz gero, matrikulatu den egunetik aurrerako 10

egunetan. Lantokiko prestakuntzako lanbide-modulua salbuesteko eskabidea egin ahal izango da kasuko azken ebaluazioa egiten den eguna baino lehenago ebazteko epe nahikoa emanda.

Ikaslea zer ikastetxetan matrikulatuta dagoen eta bere espediente akademikoan zer ikastetxe ageri den, ikastetxe horretako zuzendariak ebatziko du aurreko araudietan berariaz adierazitako baliozkotzeak eta salbuespenak onartzen diren, eskaera egiten denetik hilabeteko epean, gehienez ere.

Gainerako irakasgaiei dagokienez, Hezkuntza Sailak ez du aurreikusi beste salbuespenik. Nolanahi ere, ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (Hezkuntza Berezia antolatzen duena) xedatzen duenari jarraituz, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak izan behar du bere bilakaeraren une bakoitzean behar duen hezkuntza, hezkuntza inklusiboaren esparruan.

Nork bere gaitasunen neurrian, ikasle guztiek dute aukera irakasgai guztietako edukiak lantzeko, maila bakoitzeko irakasgai bakoitzeko curriculumaren egokitzapenak egin baitaitezke beharrezkoa bada.

Bestalde, ikasleek desgaitasun fisiko iraunkor edo iragankorrak badituzte lesio edo gaixotasunen bat dela-eta, medikuen ziurtagirien arabera desegokiak diren ariketa fisikoak egokitzea aztertu behar da.

- **Gainerako irakasgaiei dagokienez,** Hezkuntza Sailak ez du aurreikusi beste salbuespenik. Nolanahi ere, ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (Hezkuntza Berezia antolatzen duena) xedatzen duenari jarraituz, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak izan behar du bere bilakaeraren une bakoitzean behar duen hezkuntza, hezkuntza inklusiboaren esparruan.

  Nork bere gaitasunen neurrian, ikasle guztiek dute aukera irakasgai guztietako edukiak lantzeko, maila bakoitzeko irakasgai bakoitzeko curriculumaren egokitzapenak egin baitaitezke beharrezkoa bada.

  Bestalde, ikasleek desgaitasun fisiko iraunkor edo iragankorrak badituzte lesio edo gaixotasunen bat dela-eta, medikuen ziurtagirien arabera desegokiak diren ariketa fisikoak egokitzea aztertu behar da.

3.- IRAKASLEAK ETA HEZITZAILEAK

Irakasleen eginkizunak 236/2015 Dekretuaren 30. Artikuluan eta 127/2016 Dekretuan bilduta daude. Atal honetarako ere kontuan hartuko da Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legean (apirilaren 12ko 7/2007) jasotakoa, batik bat funtzionarioen eskubideak eta eginbeharrak, faltak eta zigorrak, kode deontologikoa eta gainerakoak, baita indarrean diren lan-hitzarmenak ere.

Irakasleen arduraldia **1.462 ordukoa** izango da. Irakasleek ikastetxean duten zuzeneko arduraldi arrunta **astean 30 ordukoa** izango da. **Astean 23 ordu izango dira ikastetxean egotekoak.**

Edozein inguruabar dela-eta ordutegiak orokorrean **ezarritako 23 ordu baino gutxiago** baditu, zuzendaritzak orduak gehitu beharko ditu ordutegian, kasu guztietan ordutegia bete dadin. Irakasleren batek ordutegia osatzen ez badu, ikastetxeko zuzendaritzak beste ikasle-talde batzuei dagozkien irakaskuntza-jarduerak esleitu ahal izango dizkio. Talde horien artean, konfinamendu-aldiaren ondorioz egoera okerragoan daudenei lehentasuna emango zaie.

Ikastetxean egon beharreko ordu horien barruan hauek bereiziko dira: curriculuma emateko orduak, ikasleekin egindako tutoretza-orduak, Ikastetxearen Heziketa Proiektuan jasotako ikasleekin proiektuak egiteko jarduera-orduak eta hezkuntza-arretako orduak (jolasgaraiak zaintzea eta guardiak). Gainera, **ikasleei laguntzeko denbora espezifiko** batzuk ezarriko dira. Denbora horiek hezkuntza-indargarritzako planean jasoko dira.

Ikastetxeari zuzenean dedikatu beharreko **gainerako asteko 7 orduak** hilero zenbatuko dira eta honetara bideratuko dira: departamentu bakoitzeko hainbat jarduera (programazioa, materialen diseinua, proiektu eta programen ebaluazioa etab.), kide anitzeko organoetako bilerak, ebaluazio-bilerak, ikastetxeko plangintza- eta antolamendu-tresnen lanketa, taldeko edo mailako irakasleen koordinazio-bilerak, dagozkien bestelako eginkizunak, Hizkuntza Proiektuaren batzordea, aniztasunaren arretarako Plana, Tutoretza Ekintzaren Plana eta Elkarbizitza Plana, eta eskolaz kanpoko beste jarduera batzuk eta jarduera osagarri batzuk.
Ikastetxeko zuzendaritzak **irakasle guztiak aldi berean ikastetxean egoteko** ordu batzuk ezarri ahal izango ditu, irakasle guztiak batera bertan egotea eskatzen duten koordinazio-eginkizunak egiteko, tartean aurtengo ikasturtean ikasleen koordinazio eta jarraipen berezitik eta/edo horretarako behar den prestakuntzatik eratorritakoak.

7 ordu horien plangintza zehatza IUPan jaso behar da.

Gainerako orduak, irakasleek zuzenean ikastetxeari dedikatu behar ez dizkiotenak (1.462 ordura arte), berriz, honako hauek egiteko erabili behar dituzte: irakaslana prestatzeko,

azterketak zuzentzeko, borondatezko eta banakako hobekuntza profesionala lantzeko eta, oro har, irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko.

Lanaldiaren murrizketari eta irakasleen ordutegiaren beste alderdi espezifiko batzuei dagokienez, informazioa Bigarren Hezkuntzako Institutuetan 2019-20 ikasturtea antolatzeko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpena kontsulta daiteke helbide honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ctros_ee_organizacion_curso_pb/es_def/adjuntos/Resolucion_Secundaria_2019_2020.pdf

Ikasketa-buruak ordutegiak osatuko ditu, klaustroak ezarritako eta nahitaez AJAn jasotako irizpide pedagogikoen arabera. Irakasleek nahitaez bete beharko dute zuzendaritzak onartutako irakasgai, talde eta ordutegien esleipena.

Ikastetxearen ordutegia une oro agerian, ongi ikusteko lekuan, eduki behar da beti, irakasle-gelako eta ikasketa-buruaren bulegoko iragarki-tauletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste leku batean. Halaber, zuzendaritza-kargu bakoitza ikastetxean egongo den ordutegia adierazi behar da bertan. Gainera, ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenaren eskura egon behar da, eta datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorri.

Ordutegien taulen (DAE) informatikako aplikazioan irakasleen ordutegiak sartuko dira eta irakasle bakoitzak bere ordutegian bete behar dituen eginkizunak zehatz adieraziko dira.

Lanorduak betetzeko kontrolari dagokionez, hilabete bakoitzeko 5a baino lehen, ikastetxeek irakasleen edo, hala badagokio, laneko eta/edo hezkuntzako langileen bertaratzeari buruzko informazioa emango dute, kasurako ezarritako aplikazioaren bitartez.

3.1. IRAKASKUNTZA-JARDUERAREN ANTOLAKETA

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen 36.f) artikuluan xedatzen duenez, zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran, gai hori arautzen duten arauen arabera. Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza kudeatzeko lanak eta ordu-kreditua banatzea ikastetxearen urteko planeko proiektuen arduradunen artean.

2020-21 ikasturtearen baldintzak kontuan hartuz, tutorearen eta bere taldearen arteko erlazioa nahikoa sendotu ez den kasuetan batez ere, tutoreak talde berarekin jarraitzea gomendatzen da.

3.1.1.- Ikasgaien eta taldeen esleipena egitean, honako hauek hartuko dira kontuan: irakaskuntzako esleipenak eta funtzioak arautzen dituzten arauak, langilea atxikita dagoen lanpostua, ekitate-irizpideak, irakaskuntza kalitatezkoa izateko irizpideak, eta nahitaez bete behar diren beste irizpide eta arau hauek. Irizpideak eta arauak Bigarren Hezkuntzako Institutuetan 2019-20 ikasturtea antolatzeko Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenean kontsulta daiteke helbide honetan: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ctros_ee_organizacion_curso_pb/es_def/adjuntos/Resolucion_Secundaria_2019_2020.pdf

Ikastetxeko zuzendaritzak legezko eskumena du, ikastetxearen antolamendu hoberenari eta ikasleen beharrei begirako moldakortasun- eta egokitasun-printzipioak kontuan hartuta, eskolak irakasleen artean banatzeko, departamentuen eta irakasleen proposamenak entzun eta gero.

3.2.- HEZKUNTZA-EREFORTZUA

2020-21 ikasturtea 2019-20an gertatu diren inguruabarrek baldintzatuko dute argi eta garbi. 2019-20 ikasturteko azken hiruhilekoan, modu ez-presentzialean finkatutako programazioarekin jarraitzeko egon diren aukeren eta hezkuntza-mailaren arabera, proposamen bakar batekin konpondu ezingo diren hainbat egoera emango dira. Horregatik, edozein kasutan, ikastetxe bakoitzak bere **Hezkuntza Errefortzuko Plana** ezarri behar du. Plana hezkuntza-neurriz —bakarkakoak edo kolektiboak— osatuko da, eta neurri horiek irakasleek diseinatuko dituzte eta, hautemandako zailtasunak kontuan hartuz, ikasleen ikaskuntza indartzera bideratuko dira.

Irakasle talde osoa eginkizun horretan konprometituko da. Bertan, batez ere, konpetentziak garatzeko hasierako maila duten ikasleak hartuko dira kontuan.

Zuzendaritza-taldeak koordinatu behar du hezkuntzako errefortzu-plana, irakasle bakoitzari honek garatu behar dituen eginkizun zehatzak esleituz, irakasle horrek ikastetxeari eskainitako ordutegia osatzeko, aurtengo ikasturtean ikasleei babesa eta errefortzua ematea lehenetsiz. Proposatuko dituzten jarduera guztietan, zein ikasleri eta talderi zuzendua dagoen zehaztu beharko dute.

Horren haritik, goizeko lanaldia baimenduta duten ikastetxeek euren irakasleen ordutegia antola dezakete, arratsaldez, bizitako konfinamendu-egoeraren ondorioz hezkuntza-errefortzua beharko luketen ikasleekin esparru eta/edo gai zehatzen ikaskuntza hobetzeko saioak eskaini ditzaten. Proposamen horrek ez du eskola-ordurik murriztuko.

Ikaskuntza-erritmo diferenteak hartuko dira kontuan, lehentasunez euskararen erabilera indartuz, irakurketarekin, literatura-solasaldiekin, idazketa-tailerrekin edo ahozko adierazpenarekin lotutako ekimenen bitartez. Halaber, STEAM sustatuko da diziplinen arteko proposamenekin.Egoera ez-pesentzialean beharko lituzketen euskarriak, plataformak, sare sozialak, material didaktikoak eta abarrerako baliabide digitalak erabiltzeak ere lehentasuna izango du.

Informazioa bilatzea eta erabiltzea sustatuko duten diziplinen arteko proiektuetan edo erronketan oinarritutako metodologiak garatu ahal izango dira, eta lan idatzi, eztabaida eta abarren bateratze-lanak proposatuko dira.

Proposatutako jarduerak, helburuak, lorpen-adierazleak eta erabili beharreko baliabideak ahalik eta gehien zehaztu beharko dira.

Sailak *Hezkuntza indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientabideak oinarrizko hezkuntzan* dokumentua badu. Dokumentu hori erreferentziatzat har daiteke beharra duten ikasleen banakako planak prestatzeko.

Gogoan izan behar da ekitatezko eta bikaintasunezko hezkuntza bultzatzeko bere gain hartutako konpromisoei erantzuteko, EAEko ikastetxe batzuek parte hartzen jarraituko dutela hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza hobetzeko ekimenetan (**EUSLE gelak**, iritsi berriak diren ikasleentzat edo euskara irakasteko didaktika eta metodologia hobetzeko), baita gizarte-kohesioa lortzearekin eta oinarrizko gaitasunak hobetzearekin lotutako beste ekimen batzuetan. Horretarako, dibertsitateari erantzuteko programak erabiliko dituzte, adibidez, Curriculum Dibertsifikazioko Programak, Hezkuntza Errefortzu Espezifikoko Programak, Eskolatzeko Programa Osagarriak, **Hamaika Esku, HAUSPOA, Gizarte- eta hezkuntza-proiektuak** edo **MAGNET-ERAKARRI** proiektua. Azken hori, oraingoz, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan bakarrik.

Bidelaguna Programari dagokionez, jarduera ez-presentzialeko agertoki batean, **zuzendaritzak programaren monitoreei ikastetxeko baliabide teknologikoak erabiltzeko aukera eman beharko die, irakaskuntza-ordutegitik kanpo laguntza ematen jarrai dezaten, eta nahastuta dauden irakasle tutoreekin koordinazioa bermatzeko**.

3.3- ZUZENDARITZA-TALDEA

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendariak, ikasketa-buruak eta idazkariak eta, dagokionean, administratzaileak osatuko dute zuzendaritza-taldea.

Ikastetxeen ezaugarrien arabera, alboko zuzendaria (zuzendariordea), alboko ikasketa-burua eta alboko idazkaria egon ahalko dira. Eskolak gauez ematen dituzten ikastetxeetan, gaueko ikasketa-burua.

Ikastetxeetan, halaber, zuzendaritzakoak ez diren karguak ere egongo dira. Horien funtzioak 2019-20 ikasturteko Ebazpenean deskribatu dira. Bertan, euren ordutegiak antolatzeko irizpideak ere adieraziko dira:

- Ikastegiak dituzten ikastetxeetan, irakasle delegatua.
- DBH eta beste hezkuntza-etaparen bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa edo heziketa- zikloak) ematen duten ikastetxeetan, DBHko koordinatzailea.
- Lanbide Heziketa espezifikoa ematen duten ikastetxeetan kargu hauek izan ahalko dituzte, besteak beste: ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa dualaren koordinatzailea eta, hala badagokio, enplegurako prestakuntzaren arduraduna.
- Kalitatearen ISO 9000 ziurtagiria duten ikastetxeetan, kalitatearen arduraduna.
- Ikastetxeek koordinaziorako beste kargu batzuk izendatu ahal izango dituzte, beren AJAn ezarritako irizpide eta prozedurekin bat (prestakuntzako koordinatzailea, berrikuntza- edo esperientzia-proiektuaren koordinatzailea, baliabide didaktikoen arduraduna...). Irakasle horien ordutegi-murrizketak ikastetxean eskuragarri dauden orduen araberakoak izango dira.

Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariek aste guztietako ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.

Hileko hirugarren ostegunean berritzeguneetako zuzendariak deituko ditu dagokien mintegira.

3.4.- IKUSPEGI INKLUSIBO BATETIK ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO BEREZIKI PRESTATUTAKO IRAKASLEAK

Irakasle tutoreek euren ikasleen hezkuntzako jarduketa guztiak antolatzen, zuzentzen eta koordinatzen dituzte eta, beraz, eurek zuzendu behar dute hezkuntzako esku-hartzea.

Gogoratuko dugu programazio-elementu horietan guztietan, ikaslearekin berarekin eta familiarekin esku har dezaketen beste eragile sozial eta sanitario batzuekin balizko erlazioa *Jarduketa-plana* adierazpenaren barne hartzen dela.
Hain zuzen ere, ikasle bakoitzaren beharrei erantzunez, laguntza pertsonalen barne ere sar daitezke beste profesional batzuk. Horien papera nahiko ezaguna duten arren azpimarratu egin behar da.

- **Irakasle orientatzaileak:**

1.agertokian irakaskuntza presentzialeko egoera batetik, 2. agertokian topatu dezakegun irakaskuntza presentziala eta online uztartzen diren egoera batera, edo irakaskuntza ez-presentzialeko 3. agertokira igarotzen bagara, irakasle taldeen eta laguntzako profesional espezifikoen arteko koordinazioa inoiz baino beharrezkoagoa da, Hezkuntza Premia Bereziko Ikasleen aholkularitzen orientabideekin eta ikasturte honetarako planteatutako proposamen espezifikoekin jarduketak koherenteak izateko.

Irakasle tutoreei eta irakasle taldeari aholkatu eta lagunduko die, laguntza jasotzeko premia espezifikoak dituzten ikasleen jarduketa-planak aztertuz eta egokituz, eta bitarteko telematikoen (irakaskuntza ez-presentziala) eta beste bitarteko tradizionalago batzuen bidez (irakaskuntza erdi-presentziala) hezkuntza-erantzunaren indibidualizazioa sustatuz. Halaber, zuzendaritza-taldearen eta irakasleen ekintzak koordinatu beharko dira, eremu horretako berritzeguneko erreferentziako aholkularitzarekin eta Hezkuntza Premia Bereziko aholkularitzarekin.

- **Hezkuntza Premia Bereziak babesteko profesional espezifikoak.**

Ikastetxeetako zuzendaritzek bermatu behar dute irakasleek eta hezkuntzako gainerako langileek koordinaturik lan egiten dutela plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan eta ikasleen jarraipena eta ebaluazioa egiteko orduan. Profesional horiek irakasle tutoreekin elkarlanean jardun beharko dute, ikasleen konpetentzien garapenean eta curriculuma eskuratzen laguntzeko, irakasleen laguntzarekin eta gidarekin eta laguntza-zerbitzuen aholkularitzarekin.

Ikasturtearen hasieran beharrezkoa izango da, finkatutako jarduketa-planetan oinarrituz, irakasle tutoreek eta aholkulariek, ikaslearekin diharduten gainerako hezkuntzako profesionalekin batera, agertoki bakoitzaren aurrean —irakaskuntza ez-presentziala edo presentziala eta online uztartuko dituena— euretako bakoitzak bete behar dituen eginkizunak —era koordinatuan irakasle tutoreen zuzendaritzapean— zehaztea.

3.5.- DEPARTAMENTUAK

Departamentuak eratzeko eta hauen eginkizunak zehazteko irizpideak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan euren buruzagitzei buruzko informazioa 2019-20 ikasturteko Ebazpenean kontsulta daitezke. Hala ere, aurtengo ikasturtean **honako hauek lehenetsiko dira**:

- Departamentu-buruaren zuzendaritzapean bilduko diren irakasleen koordinazio didaktikoa, arlo bakoitzaren programazioa aztertzeko, iraileko hasierako ebaluazioan oinarrituta eskuratutako datuak kontuan hartuz.
- Plan orokorrarekin errefortzu-planen diseinua.
- Landu ez baina beharrezkoak ziren aurreko mailako funtsezko elementuak **eransteko** programazioa egokitzea.
- Maila berrian bilakaera apropos baterako aurreko mailatako funtsezko elementuak **indartzeko** programazioa egokitzea.
- Aurreko lehentasunen arabera azpimarragarriak ez diren edo aurreragoko mailen programazioetan behin eta berriz jasotzen diren elementu osagarrientzako programazioa egokitzea.
- Osatu den programazioa egokituz, esku-hartzean koherentzia bermatzeko koordinazioa.
- Irakaskuntza ez-presentzialeko egoera berriz agertzen denerako behar diren material digitalak prestatzea, baita astean behin, gutxienez, pandemia berriro gertatuko balitz erabili beharko liratekeen baliabide digitalekin “entrenamendua” egitea ere.

Bestalde, Martxoaren 6ko 33/2018 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela- eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoa) xedatzen du zer baldintza bete behar diren EAEn funts publikoekin finantzatu eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxeetan Haur Hezkuntzako graduko eta Lehen Hezkuntzako graduko unibertsitate-tituluen practicuma egiteko, besteak beste.

Ikastetxeko zuzendaritzak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleei, irakaskuntza-arduraldiko orduen barruan kasuan kasuko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezen. Absentzia hori aurreikusitakoa izango denez, ikasketa-burua arduratuko da irakasle horrek absentzia horren eraginpeko ikastaldeentzat planifikatu eta prestatutako jardueren aplikazioa antolatzeaz.

Hutsegiteak justifikatzeko, deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu behar dituzte irakasleek. Ezin izango da ordezkorik eskatu horiek betetzeko.

Astean ordubete gorde behar da gutxienez departamentuko kide guztiak biltzeko, DBHko, Batxilergoko edo heziketa-zikloetako ikastetxeetako ordutegiaren barruan.

Hizkuntza-departamentu guztietan asteko bilera-ordua batera egingo da, hizkuntzei buruzko planteamendu integratu bat garatu eta, hala, programazio integratu bati bide emateko. Ikasketa-buruak kontuan hartu behar du hori ordutegiak prestatzen dituenean. Departamentuko kide guztiek joan behar dute bileretara, eta bileren aktan espresuki jasoko dira, gutxienez, alor hauek: bertaratu direnak eta absentziak, gai-zerrenda eta hartutako erabakiak. Irakasleen gainerako ordutegi pertsonaleko hutsegiteen modu berean justifikatu beharko dira bileretako absentziak eta, dagokionean, ondorio berberak izango dituzte.

Ekainean, departamentuetako kideek bildu behar dute lan-plana eta haren lorpenak aztertzeko eta hurrengo ikasturterako egin beharreko zuzenketak zehazteko.

3.6.- IRAKASLE TALDEAK ETA TUTORETZAK

Mailako **irakasle taldea** da ikasleekin esku hartzeko muina. Talde horren koordinazioa ezinbestekoa da esku-hartzea koherentea izateko eta ikasleen lorpenen eta zailtasunen jarraipena partekatzeko, baita irakatsi eta ikasteko prozesua berriz bideratzeko litezkeen esku-hartzeak ere.

Ahaztu gabe irakasle guztiek dutela beren funtzio eta eginkizunen artean, 236/2015 eta 127/2016 Dekretuen arabera, ikasleen artean sor daitezkeen arazoak eta gatazkak konpontzea, ikastetxe bakoitzean ikasle-talde bakoitzak tutore bat izango du, curriculum-aniztasuneko taldeetan izan ezik, horiek bi tutore izango baitituzte. Tutorea talde horretan ikasgai bat edo gehiago ematen dituen irakasle bat izango da.

Posible den heinean, ahaleginak egingo dira DBHko ikasleek tutore bera izan dezaten ikasturte guztietan, batik bat 1. eta 2. mailan.

Tutoreak egindako jarduerak zerikusi zuzena du ikasleei, banaka zein taldean, laguntza eta babesa ematearekin, eta aurtengo ikasturteari begira:

- Ikasturtearen hasieran, ikasle bakoitzaren hasierako ebaluazioa koordinatuko du, hezkuntza arloko laguntza edo errefortzuko premiak hautemateko. Irakasle taldearekin lan egingo du, ebaluazio horren emaitzak analizatzeko. Emaitza horiek

abiapuntutzat hartuko dira, beharrak dituzten ikasleen *jarduketa-planen* programazioa eta plangintza diseinatzeko.

- Ebaluazio horren ondoren, programazioaren egokitzapena koordinatuko du.
- Online esku hartzeko estrategien aurreikuspena ere koordinatuko du.
- Gailu digitalak ez dituzten ikasleen erregistroa egingo du, eta gabezia horrek ikasleei espero bezala aurrera egiten ez eragozteko behar diren kudeaketak egingo ditu.
- Taldearekin elkarlanean, ebaluaziorako jarraibideak finkatuko ditu. Hori gauzatzeko erregistro eta proba motak.
- Familiekin koordinatzeko jarraibideak sustatuko ditu, ikasleen jarraipena egiteko informazio-fluxu sistematikoa ahalbidetzeko, bai emozioaren esparruari bai esparru akademikoari lotuak.
- Halaber, ezin ditugu baztertu gure ikasleen zati batek konfinamenduan bizi izan dituen eta eskola esparrutik aurre egin behar zaien kalteberatasuneko egoera soziofamiliarrak. Banakako tutoretzaren bitartez, irakasle tutoreak kasu horiek identifikatu beharko ditu, ikasleei hauek beharko duten laguntza psikologikoa eta emozionala emateko. Kasu horietan, familiekin lan gehiago egin beharko da eta beste sistema batzuekin (gizarte-zerbitzuak, zerbitzu sanitarioak, hirugarren sektorekoak…) koordinazioa eta lankidetza sustatu, ahalik eta erantzun osatuena emateko. Horren haritik, Sailak, aurki, jarduteko proposamen bat jarriko du ikastetxeen eskura, jarduera ez-presentzialeko egoeraren ondoren, talde-tutoretzan ikasleen itzulera lantzeko, ikuspegi emozionaletik.

Lanbide Heziketako ikastetxeetan, tutoreak taldeko ikasle guztiek ematen duten moduluetako irakasle izan beharko du.

3.7.- ENPLEGUA LORTZEKO PRESTAKUNTZA

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren (maiatzaren 3ko 2/2006) 95. artikuluaren kalterik gabe, eta ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoaren lehen xedapen osagarriaren 1. apartatuak adierazitakoari jarraikiz, katedradunen kidegoko irakasleek, bigarren hezkuntzako irakasleek eta lanbide-heziketako irakasle teknikoek beren funtzioak bete ahal izango dituzte eskaintza integratuko ikastetxe publikoetan, eta Lanbide Heziketako modalitate guztiak eman ahal izango dituzte, beren profil akademikoaren eta profesionalaren arabera, baldin eta Lanbide Heziketako tituluetan, dagozkion profesionaltasun-ziurtagirietan edo bestelako prestakuntza-espezialitate batzuetan sartutako moduluak emateko baldintzak betetzen badituzte. Beren lanpostuaren lanaldia eta ordutegia osatu beharko dituzte irakasle horiek, beste modalitate batzuetako prestakuntza-ekintzak emanez. Era berean, nahi badute, beren

arduraldia handitu ahal izango dute, eta handitze hori interes publikotzat hartuko da, eta arduraldia ez da bateragarritasun-baimenaren mendean egongo.

Ikastetxeko zuzendaritzak irizpide objektiboak ezarriko ditu, irakasgai horiek irakasteko gaitasuna duten irakasleei irakasgaiak esleitzeko. Irizpide horien artean, hauek izango dute lehentasuna: ekoizpen-sektorean esperientzia profesionala izatea, enplegurako Lanbide Heziketako irakasgai horietan irakaskuntza-esperientzia izatea, edo eskainitakoarekin bat datorren hasierako Lanbide Heziketan irakaskuntza-esperientzia izatea. Halaber, irizpide horietan kontuan hartuko da oreka bat egotea hasierako prestakuntzako irakaskuntzaren eta enplegurako Lanbide Heziketako irakaskuntzaren artean.

3.8. BERARIAZKO LANGILEAK

Ikus 2019-20 ikasturteko ebazpena hauentzat:

- **JANGELAKO ARDURADUNA**
- **ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAREN ARDURADUNA**
- **JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKOEN PROGRAMAKO IRAKASLEAK**

Mota honetako programetarako irakasleen jarduera, batez ere, programa bakoitzaren esparruetatik laguntza behar duten ikasleei arreta emateko antolatuko da.

- **LAN-LEGAPEKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEAK (2004KO MAIATZAREN 21EKO EBAZPENA, 2004-06-17KO EHAA)**

Ikastetxeetako zuzendaritzek bermatu behar dute irakasleek eta hezitzaileek (logopedak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBTetako profesionalak, gortasun-itsutasuneko profesional bitartekariak, entzumen-arazoetako koordinatzaileak) koordinaturik lan egiten dutela. Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleen jarduketa-plana abian jartzeko, garatzeko, jarraipena egiteko eta ebaluatzeko plangintzaren (plana, ordutegia…) ondoriozko eginkizunetan parte hartuko du profesional horietako bakoitzak. Hortaz, irakasle titularrak esleitzen dizkien eginkizunak euren gain hartu beharko dituzte, betiere euren konpetentzia profesionalarekin bateragarriak badira.

Irakaskuntza ez-presentzialeko edo erdipresentzialeko 2. eta/edo 3. agertokietara iritsiz gero, profesional guztien arteko lankidetza lehentasuneko eskaera profesionaltzat jo behar da. Euren ordutegia eta bertaratzea kontrolatzea ikastetxeko zuzendaritzaren ardura izango da.

- **IBR-CRI LAGUNTZA-ZERBITZUA**

Kasu honetan ere, laguntzeko profesional espezifikoak diren aldetik, euren hezkuntza-ekintza ikusmen-desgaitasuna duten ikasleekin diharduten gainerako profesionalekin koordinatu behar dute. 2. eta/edo 3. agertokietara igarotzen bagara, profesional horiek nahikoa eskuduntza tekniko eduki behar dute ikasle horien premia espezifikoei erantzuteko, hauek ezin baitute online irakaskuntzaren baliabide arruntenak erabili. Ikasle horientzako hezkuntza-erantzunaren eskuragarritasuna zaintzeak eta ziurtatzeak haien eginkizun nagusietakoa izan behar dute.

- **ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETEA**

Pertsonal ez-irakasle den arren, irakasle taldearekin elkarlanean, irisgarritasuna ziurtatzea da bere helburu nagusia. Horregatik, berari dagokion *Jarduketa-planean* hartu behar du parte helburu argi horrekin.

4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK

Gai hauen inguruan:

- Ikastetxeetako osasunari eta segurtasunari buruzko araudia.
- Laneko arriskuen prebentzioko zerbitzua

Orientabide espezifikoak Prebentzio-zerbitzuak sortutako dokumentuan kontsultatu behar dira:
https://www.euskadi.eus/covid-19-y-prl-informacion-general-y-recursos-en-materia-de-prevencion-de-riesgos-laborales/web01-a2hsprl/es/

Gai hauen inguruan:

- Ikastetxeetako eraikinak eta instalazioak urteko planean aurreikusi ez diren jardueratarako erabiltzea
- Datu pertsonalen babesa
- Ikastetxeen jabetza intelektuala

Kontsultatu informazioa 2019-20 ikasturtearen hasierari buruzko Ebazpenean

2. ZATIA

BIGARREN HEZKUNTZARAKO DOKUMENTUAK

Dokumentua	Eremua
Curriculumaren funtsezko alderdiak. Hezkuntza Saila (2020).	Curriculuma
Udan egiteko jardueren proposamena. Hezkuntza Saila (2020).	Curriculuma
Hezkuntza Saila (2020).	Curriculuma
Gorputz Hezkuntza. 2020-21 ikasturterako orientabideak. Hezkuntza Saila (2020).	Curriculuma

Dokumentua	Eremua
Zeharkako konpetentzien garapena larrialdi sanitarioko egoeran. Hezkuntza Saila (2020).	ELKARBIZITZA
Eremu sozioemozionala eta talde-kohesioa lantzeko proposamena. Hezkuntza Saila (2020). .	ELKARBIZITZA

Dokumentua	Eremua
Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (SARS-CoV-2) aurrean jarduteko protokolo orokorra, 2019- 2020 ikasturtearen amaieran. Hezkuntza Saila (2020).	HIGIENEA eta OSASUNA
Kontingentzia- eta jarduketa-protokoloko eredua. Hezkuntza Saila (2020).	HIGIENEA eta OSASUNA

Dokumentua	Eremua
Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleen familientzako orientabideak. Hezkuntza Saila (2020).	Eskola inklusiboa
Jarduketa eta estrategia metodologiko inklusiboak. Hezkuntza Saila (2020).	Eskola inklusiboa
Dibertsitateari erantzuteko plana. Hezkuntza Saila. (2020).	Eskola inklusiboa

Ikasle iritsi berrien hasierako ebaluazioa. Hezkuntza Saila (2020).	Eskola inklusiboa
Harrera-plana. Hezkuntza Saila (2020). .	Eskola inklusiboa
HLPB ikasleekin esku hartzeko proposamen inklusiboak. Hezkuntza Saila (2020).	Eskola inklusiboa

Dokumentua	Eremua
Atzerritar jatorriko eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak. Hezkuntza Saila (2018).	Eskola inklusiboa
Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana. Hezkuntza Saila (2019).	Eskola inklusiboa
Adoptatutako ikasleei eskola inklusiboan eman beharreko hezkuntza-erantzuna. (2017). Hezkuntza Saila.	Eskola inklusiboa
Adimen-gaitasun handiko ikasleei hezkuntza-arreta emateko plana (2019). Hezkuntza Saila.	Eskola inklusiboa
Braille irakurketa-idazketaren irakaskuntzarako gida. Ikaskuntzen programazio didaktikorako eduki eta materialen analisia eta egituraketa (2019). Hezkuntza Saila.	Eskola inklusiboa
2016-2020ko eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren eremuan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Plana Hezkuntza Saila (2016)	Eskola inklusiboa

(*) Beste laguntza-dokumentu batzuk Hezkuntza Sailaren web-orrian

Vitoria-Gasteiz, 2020eko ekainaren 22a.

Maite Alonso Arana
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA